

SOZIETATEEN GAINEN ZERGAREN ARAUTEGIA

Diputatuen Kontseiluaren 41/2014 Foru dekretua, abuztuaren 1ekoa, sozietateen gaineko zergaren arautegia onartzen duena

(ALHAO, 89. zk., 14-8-8koa)

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren bidez goitik behera berritu da zerga horren kargapean dauden pertsona juridikoek eta gainerako erakundeek jasotzen dituzten errenten gaineko tributazioaz Arabako Lurralde Historikoan indarrean dagoen arautegia, bai ikuspegi sistematikotik, bai Zergaren funtsezko araudiari dagokionez.

Foru arau horretako xedapen indargabetzaile bakarreko 3. idatz zatian ezarri da hura garatzen duen araudia onartu arte indarrean segituko dutela Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Araua garatzeko emandako araudi xedapenek (funtsean, Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onartu duen abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuak), foru arau honetan xedatutakoarekin bat datozen ginoan.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko hainbat idatz zatitan araudi garapena aipatzen da, bai Administrazioa aurretiaz lotesteko prozedurei eta horiek hasteko eskaerei dagokienez, bai arautegiko kontzeptu batzuen zehaztapenari dagokionez.

Gainera, indargabetutako arautegitik erregulazio berrirako trantsizioak berekin ekarriko du kasu batzuetan zergadunek hautapen batzuk egin beharra edo eskaera batzuk aurkezteko izapideak egin beharra, eta horregatik ezinbestekoa da azkar garatzea Sozietateen gaineko Zergaren araudi berria.

Illo beretik, Sozietateen gaineko Zergaren arautegian alderdi oso berritzaileak daude, eta guztiz aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da formulazioa hobeto zehaztea edo Zergari buruzko Foru Arauan aipatzen diren araudi garapenak gauzatzea.

Foru dekretu honen helburua Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren Araudia garatzea da, hain zuzen ere Zergaren arautegia osatuko duen Araudia onartzea, zergadunek behar duten segurtasun juridikoa eduki dezaten.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Hori dela bide, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

I. TITULUA ZERGADUNA

1. artikulua. Mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko hemendik aurrera Zergari buruzko Foru Araua 13. artikuluko 4. idatz zatian aipatzen diren kasuetan, higiezinaren sustapenean ari den zergadunaren plantillako urteko batez besteko kopurua higiezinak sustatzen eta eraikitzen diren aldikoa izango da, eta ondoren kopuru hori ez mantentzeak ez du ekarriko sustatutako aktibo korronteak besterenduta lortutako errentak enpresa jardueren ondoriozkotzat ez hartzea.

Aldiz, aurreko paragrafoan aipatutako erakundeak sustatutako higiezina gero errentan jartzen badu edo hura erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eratzten edo lagatzen baditu, higiezinaren lagapenaren edo ustiapenaren ondoriozko errenta enpresa jarduera baten ondoriozkotzat hartzeko ezinbestekoa izango da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 13. artikuluko 4. idatz zatian aipatzen den batez besteko plantilla mantentzea.

2. artikulua. Ondare sozietateak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran xedatutakoa aplikatzeko, ez beste ezertarako, bertan aipatzen diren erakundeei ez bazaie aplikatzen Arabako Lurralde Historikoko arautegia, ondare sozietatetzat hartzeko ezinbestekoa izango da Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluan horretarako ezarritako baldintza guztiak betetzea.

2. Banatu gabeko mozkinak, Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluko 2. idatz zatiko b) letran aipatzen direnak, jarduera ekonomikoaren bidez lortu diren zehazteko mozkinak sortu diren zergaldian indarrean egon den arautegia aplikatu behar da.

3. Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluko 2. idatz zatiko c) letran aipatzen diren kasuetan, higiezinaren sustapenean ari den zergadunaren plantillako urteko batez besteko kopurua higiezinak sustatzen eta eraikitzen diren aldikoa izango da, eta ondoren kopuru hori ez mantentzeak ez du ekarriko sustatutako aktibo korronteak besterenduta lortutako errentak enpresa jardueren ondoriozkotzat ez hartzea.

Aldiz, aurreko paragrafoan aipatutako erakundeak sustatutako higiezina gero errentan jartzen badu edo hura erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eratzten edo lagatzen baditu, higiezinaren lagapenaren edo ustiapenaren ondoriozko errenta enpresa jarduera baten ondoriozkotzat hartzeko ezinbestekoa izango da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluko 2. idatz zatiko c) letran aipatzen den batez besteko plantilla mantentzea.

4. Zergaren Foru Arauaren 14. artikuluen 1. paragrafoaren c) idatz zatiaren bigarren lerroaldean eta 14. artikuluen 2. paragrafoaren c) idatz zatiaren xedatutakoa

gorabehera, ez dira jarduera ekonomikoei lotutako gai gisa hartuko honako betekizun hauek betetzen dituzten erakundeen aktibo korronte diren ondasun higiezinak:

- a) Erakundeak jarduera bakar higiezin sustapena izatea eta jarduera ekonomiko hori denboran zehar garatzeko ezinbesteko giza baliabideak eta materialak dituela egiaztatzea.
- b) Bere aktiboen ehuneko 85 edo gehiago ondasun higiezin osatuta egotea eta aktibo horiek aktibo korronte izaera izan dezatela, higiezinaren sustapenerako jarduerari loturik egoteagatik.
- c) Erakundearen diru sarreren ehuneko 85 edo gehiago erakundeak sustatutako ondasun higiezinaren eskualdaketatik etortzea.

Idatz zati horretan adierazitako diru sarrerak zenbatzean, ez dira kontuan hartuko Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluan xedatutako eran lotutako pertsona edo erakundeek egindako eragiketetatik datozenak.

3. artikulua. Ondare sozietateen betebeharrak formalak.

1. Ondare sozietateek ondoko informazioa eman behar dute urteko kontuen memorian:

- a) Ondare sozietate izan ez diren zergaldietan erreserbetarako aplikatutako mozkinak
- b) Zerga ondare sozietateen araubide berezian egonik (Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko 66. artikulua eta hurrengoak) edo ondare sozietatea izanik (Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikulua) ordaindu duten zergaldietan erreserbetarako aplikatutako mozkinak.
- c) Erreserben kargurako mozkinen dibidenduak eta partaidetzak banatzen badira, zein erreserba aplikatu den zehaztu behar dute, hau da, aurreko a) eta b) letratan aipatutako bietatik zein aplikatu den mozkinen motaren arabera.

2. Urteko memorian aipatu beharrekoak aurreko idatz zatiko b) letran adierazitako erreserbak dauden artean aipatu behar dira, nahiz eta erakundea ondoko ekitaldietan ondare sozietatea izan ez.

3. Halaber, memorian informazio xehakaturik agertu behar da gastuak errenta iturrien artean banatzeko egindako kalkuluei buruz.

4. Artikulu honetan informazioaz ezarritako betebeharrak 1. idatz zatiko b) letran aipatutako erreserben titulartasuna duten elkarren segidako erakundeei ere eskatu ahal izango zaizkie.

II. TITULUA ZERGA OINARRIA

I. KAPITULUA

ZUZENKETAK GASTUETAN

4. artikulua. Amortizazio planak.

1. Zergadunek Zerga Administrazioari eskatu ahal izango diote amortizazio plan bat onartzeko araudi honetako 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorrarekin bat etorriz. Eskaera nola egin artikulua honetan arautu da.

2. Eskaeran ondoko datu hauek agertu behar dira:

- a) Amortizazio plan bereziaren xede diren ondare elementuen deskripzioa; lotuta dauden jarduera zehaztu behar da eta non dauden azaldu.
- b) Amortizaziorako proposatutako metodoa; metodo horren arabera amortizazioak denboran nola banatuko diren zehaztu behar da.
- c) Amortizaziorako proposatutako metodoaren justifikazioa.
- d) Ondare elementuen erosketa prezioa edo produkzio kostua.
- e) Ondare elementuak noiz jarri diren funtzionamendurako moduan.

Ondare elementuak eraikitzen ari badira, erabiltzeko moduan noiz egongo diren azaldu behar da.

3. Eskaera ondare elementuak eraikitzen ari diren bitartean edo funtzionamenduan jarri ondoko hiru hiletan zehar aurkeztu behar da

4. Onartutako amortizazio planak zergadunak eskatuta aldatu ahal izango dira. Horretarako aurreko idatz zatietan ezarritako arauak aplikatuko dira. Eskaera aldaketak ondorioak sortu behar dituen zergaldiko lehen hiru hiletan aurkeztu behar da.

5. Onartutako amortizazio plan bat ezaugarri bereko beste ondare elementu batzuei ere aplikatu ahal izango zaie, hain zuzen ere hura onartzea erabakitzen denetik hiru urte pasatu baino lehen amortizatzen hasiko direnei, baina horretarako ezinbestekoa izango da onartutako amortizazio metodoaren funtsezko inguruabarrak (fisikoak, teknologikoak, juridikoak eta ekonomikoak) bere hartan mantentzea.

Planaren aplikazio hori ondorioak sortu behar dituen zergaldia amaitu baino lehen jakinarazi behar zaio Zerga Administrazioari.

6. Artikulu honetan ezarritako prozedura Zergari buruzko Foru Arauko 16. artikuluko 2. idatz zatiko b) letran, 16. artikuluko 9. idatz zatian, 17. artikuluko 6. idatz zatian eta 20. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren kasuetan aplikatuko da. Kasu bakoitzean zergadunak berriazko betekizunak betetzen dituelako frogagiriak aurkeztu behar dituzte.

5. artikulua. Finantza errentamenduko kontratuak.

1. Zergari buruzko 18. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako hautapena Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaio.
2. Jakinarazpena hautapenak ondorioak sortu behar dituen zergaldia amaitu baino lehen egin behar da.
3. Jakinarazpenean datu hauek eman behar dira gutxienez:
 - a) Zer aktibo den finantza errentamenduko kontratuaren xedea.
 - b) Aktiboaren eraikuntza noiz hasi den eta noiz amaitu den.
 - c) Finantza errentamenduko kontratuaren kuotak: zenbatekoak eta noiz ordainduko diren.
 - d) Aktiboak teknika eta diseinu aldetik ezaugarri bereziak dauzkatela eta seriean ekoitzi ez direla adierazi behar da.

6. artikulua. Amortizatzeko askatasuna.

1. Amortizatzeko askatasuna, Zergari buruzko Foru Arauko 21. artikuluko 1. idatz zatiko e) eta f) letretan aipatzen dena, aplikatu nahi bada, eskaera araudi honetako 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorraren arabera aurkeztu beharko da, artikuluko honetan araututakoari lotuta.
2. Zergadunak Zerga Administrazioari aurkeztu beharreko eskaeran ondoko datu hauek agertu behar dira:
 - a) Ondare elementuen deskripzioa, elementuok zer jarduerari dauden lotuta eta non dauden.
 - b) Elementuak aurrean aipatutako e) letrakoak badira, enpresaren jardueraren eragin kutsatzailea gutxitzeko eta zuzentzeko erabili direla frogatu behar da.
 - c) Euskadiko erakunde ofizial baten ebazpena, lur kutsatuak garbitzeko proiektua onartu duena, eta aurreko f) letran adierazitako elementuek proiektuarekin lotura zuzena dutelako frogatu.
 - d) Ondare elementuen erosketa prezioa edo produkzio kostua.
 - e) Noiz lotu zaizkien ondare elementuak aurreko e) eta f) letretan aipatzen diren jarduerari.
3. Aurreko idatz zatiko b) eta c) letretan aipatzen diren frogak egiaztatzeko, Zerga Administrazioak txostena eskatu ahal izango dio Arabako Foru Aldundiko sail eskudunari.
4. Eskaera ondare elementuak eraikitzen ari diren bitartean edo jarduerari lotu ondoko hiru hiletan zehar aurkeztu behar da.

7. artikulua. Amortizazioa.

1. Zergadunak ibilgetu materialeko, ibilgetu ukiezineko eta higiezinetakoko inbertsioetako elementuak batera amortizatzea hautatzen badu, baterako amortizazioaren zenbatekoa (kenkaria) amortizazio metodo hau aplikatzen zaien ondare elementu guztien eskuraketa prezioaren edo produkzio kostuaren ehuneko 10 baino gehiago ez den zergaldietan (elementuok aktiboan noiz sartu diren kontuan hartu gabe) amortizatu gabeko zerga balio garbia osoa kendu daiteke.

2. Zergadun batek mikroenpresa izateko betekizunak betetzeari uzten badio eta ondare elementuak batera amortizatzea hautatu badu araubide hori aplikatu ahal izan zaion ekitaldietan, amortizaziorako beste arau batzuk aplikatzen dituen zergaldietan ezin kendu izango du zerga oinarritik eragiketa hauen ondoriozko zenbatekoa baino gehiago: ondare elementu bakoitza dela eta kenkaria sortu duten amortizaziorako edo narriadura galeretarako kontabilitateko zuzkidurak eta baterako amortizaziogatik elementuari dagozkion kopuruak batu eta emaitzako kopurutik elementuaren eskuraketa balioa edo produkzio kostua kendu.

3. Amortizazioa dela itzulketa aplikatzeko (Zergari buruzko Foru Arauko 21. artikuluko 5. idatz zatia), baldin eta zergadun bat Zerga ondare sozietateen erregelen arabera ordaintzen hasten bada ondare elementuen amortizazio askatasuna edo amortizazio azaleratua Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz aplikatu ondoren, zergaldi bakoitzeko zerga oinarriari itzuli beharreko kopuruak gehitu behar dizkio, gutxienez, hain zuzen ere elementuen eskuraketa balioari edo produkzio kostuari gutxieneko amortizazio koefizientea aplikatzearen emaitzako zenbatekoak; koefiziente hori kalkulatzeko 100ez zatitu behar da Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluko 6. idatz zatian aipatzen den gehieneko amortizazioaldia.

4. Zuzkidura benetako balio galerari dagokiola frogatzen denean ez beste kasu guztietan, zergaldi batean ondare elementu baten amortizazioa gutxieneko amortizazio koefizientea (Zergari buruzko Foru Arauko 17. artikuluko 6. idatz zatian aipatzen den gehieneko amortizazioaldia 100ez zatituta kalkulaturakoa) aplikatzearen emaitza baino gutxiago bada (eta jarduketa horren ondoriozko tributazioa gutxieneko amortizazioa aplikatuta izango zena baino gutxiago, gainera), gutxieneko amortizazioa hartuko da kontuan bidezko erregularizazioak aplikatzeko.

8. artikulua. Finantza merkataritzako funtsa.

Zergari buruzko Foru Arauko 24. artikuluan xedatutakoa dela eta, zergadunek ondoko datuak eman behar dituzte artikuluko horretan xedatutakoaren araberrako kenkaria aplikatzen duten ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioak aurkeztean:

a) Zuzeneko partaidetza duten erakunde bakoitzari dagokionez:

1. Erakundearen identifikazioa eta partaidetzaren ehunekoa.

2. Jardueren deskripzioa.

3. Partaidetzaren balioa eta noiz eskuratu den, eta kontabilitatean dagokion ondare garbiaren balioa (urteko kontu bateratuak oinarritzat hartuta kalkulaturakoa).
 4. Baterakuntzarako (balioak eta aldiak) erabilitako irizpideen justifikazioa, eta eskuraketa egunean partaidetzaren eskuraketa prezioaren eta hari egotzi beharreko kontabilitateko ondare garbiaren artean egon den diferentzia partaidetza hartutako erakundearen ondasunei eta eskubideei egozteko irizpideen justifikazioa ere bai,
- b) Partaidetza hartutako erakundeak beste erakunde batean partaidetza badauka, Zergari buruzko Foru Arauko 24. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoaren arabera:
1. Zuzeneko partaidetza hartutako erakundearen identifikazioa, bertako partaidetzaren ehunekoa eta jardueren deskripzioa.
 2. Zeharkako partaidetza hartutako erakundearen identifikazioa, zeharkako partaidetzaren ehunekoa eta jardueren deskripzioa.
 3. Partaidetzaren balioa eta noiz eskuratu den, eta kontabilitatean dagokion ondare garbiaren balioa, urteko kontu bateratuak oinarritzat hartuta kalkulaturakoa Merkataritzako Kodeko eta beraren garapen arauetako irizpideak (behar bezala homogeneizatuta) aplikatuz.
 4. Baterakuntzarako (balioak eta aldiak) erabilitako irizpideen justifikazioa, eta eskuraketa egunean partaidetzaren eskuraketa prezioaren eta haiei egotzi beharreko kontabilitateko ondare garbiaren artean egon den diferentzia partaidetza hartutako erakundearen ondasunei eta eskubideei egozteko irizpideen justifikazioa ere bai.
- c) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten erakundeek partaidetzak eskuratzeko egindako inbertsioaren zenbatekoa. Zenbateko hori Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko hogeita laugarren xedapen iragankorrean araututako kenkariaren oinarrian sartzen da.

8 bis. artikulua. [\(12\)](#) Finantza gastuen kengarritasuna baino muga handiagoa aplikatzeko proposamena.

1. Zergaren Foru Arauaren 25.bis artikuluko 8. apartatuko kasuetan, zergapekoen finantza gastu garbien kengarritasunerako artikuluko horren 1. apartatuan ezarrita dagoena eta taldearen finantza gastu garbiek sozietate taldearen mozkin operatiboari dagokionez hirugarrenen aurrean duten koefizientean oinarritua dagoena baino muga handiagoa alde aurretik zehazteko prozedura arautegi honen 24. artikulutik 28. artikulura bitartean ezarritako arauari jarraituz gauzatuko da, artikuluko honetan ezarritako berezitasunekin.
2. Zergapekoek proposamen bat aurkeztu ahal izango diote Zerga Administrazioari Zergaren Foru Arauaren 25.bis artikuluko 1. apartatuan ezarritakoa baino muga handiagoa aplikatzeko beren finantza gastu garbien kengarritasunari, artikuluko beraren 8. apartatuan xedatutakoaren arabera. Proposamen horrekin, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:
 - a) Erakundea kide den sozietate taldearen deskripzioa.

b) Erakundearen urteko kontuak eta erakundea kide den sozietate taldearen urteko kontu bateratuak.

c) Sozietate taldeak hirugarrenetikiko dituen finantza gastu garbien kalkulua eta xehetasuna.

d) Sozietate taldearen mozkin operatiboaren kalkulua eta xehetasuna.

e) Zergaren Foru Arauaren 25.bis artikuluko 1. apartatuan ezarritakoa baino muga handiagoa finantza gastu garbien kengarritasunerako, eta haren justifikazioa, aplikaziorako oinarritzotzat jo behar diren inguruabar ekonomikoak nabarmenduta.

9. artikulua. Ingurumen arloko jarduketei dagozkien gastuen planak.

1. Zergadunek Zerga Administrazioari eskatu ahal izango diote Zergari buruzko Foru Arauko 26. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren ingurumen arloko jarduketei dagozkien gastuen plana onartzeko, araudi honetako 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorrarekin bat etorritz. Eskaera nola egin artikuluko honetan arautu da.

2. Eskaeran ondoko datu hauek agertu behar dira:

a) Zergadunak ingurumenari kalte ez egiteko edo egiten zaizkion kalteak konpontzeko bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak.

b) Egin nahi den jarduketaren deskripzio teknikoa eta beharizanaren justifikazioa.

c) Ingurumen arloko jarduketari dagozkion gastuen zenbateko aurreikusia eta horren justifikazioa.

d) Ingurumen arloko jarduketari dagozkion gastuen zenbateko aurreikusia aldi jakin bati egozteko irizpidea eta horren justifikazioa.

e) Ingurumen arloko jarduketa hasiko den eguna.

3. Eskaera ingurumen arloko jarduketaren betebeharra edo konpromisoa hasten denetik hiru hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar da.

4. Ingurumen arloko jarduketei dagozkien gastuen planak onartu ondoren aldatu daitezke zergadunak eskatuta. Horretarako artikuluko honetan ezarritako arauak hartu behar dira aintzat. Aldaketaren eskaera hark ondorioak sortu behar dituen zergaldiko lehen hiru hiletan aurkeztu behar da.

10. artikulua. Gastu kenezinak.

Zergari buruzko Foru Arauko 31. artikuluko 1. idatz zatiko h) letran xedatutakoari dagokionez, bertan aipatzen diren gastuen zati bat eskudirutan ordaintzen bada, kopuru hori ez da kengarria.

II. KAPITULUA

ZUZENKETAK SARRERETAN

11. artikulua. Berrinbertsioko plan bereziak.

1. Frogatzen bada ezen, ezaugarri teknikoak edo ekonomikoak direla eta, inbertsioa gauzatzeko Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoa baino aldi luzeagoa behar dela, zergadunak Zerga Administrazioari eskatu ahal izango dio berrinbertitzeko plan berezia onartzeko.

Eskaera araudi honetako 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorraren arabera egin eta izapidetu behar da, artikuluko ondoko idatz zatietan arautu denarekin bat etorriz.

2. Eskaeran ondoko datu hauek agertu behar dira:

- a) Eskualdatutako edo eskualdatzeko diren ondare elementuen deskripzioa.
- b) Eskualdaketaren zenbatekoa, benetakoa edo aurreikusia.
- c) Berrinbertsioa jasoko duten ondare elementuen deskripzioa.
- d) Berrinbertsiorako aldi planaren deskripzioa.
- e) Berrinbertsioko plan berezia justifikatzen duten inguruabarren deskripzioa.

3. Berrinbertsioko plan berezia ondoko epealdietako batean aurkeztu behar da, kasuan kasukoa:

- a) Sei hilabete aparteko mozkin sortzen duen eskualdaketatik.
- b) Eskualdaketa egiteko asmoa dagoen egunaren aurreko sei hilak.
- c) Aurreratutako inbertsioa egiteko asmoa dagoen egunaren aurreko sei hilak.

b) letran ezarritako kasuan eskualdaketa berrinbertitzeko plan berezia onartzen denetik sei hilabete pasatu baino lehen egin behar da; c) letrako kasuan berrinbertsioa eskaera aurkezten denetik sei hilabete pasatu baino lehen egin edo hasi behar da.

4. Gainera, zergadunek berrinbertsioko plan berezia onartzeko eskatu ahal izango dute kasu honetan ere: inguruabar jakinak direla eta (azaldu egin behar dira) berrinbertsioa Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako epealdian gauzatu ezin denean.

Halakoetan, aurreko 2. paragrafoan zehaztutako datuak biltzen dituen eskaera aurkeztu behar da, eta bertan ondokoak zehaztu behar dira: zenbat gauzatu den berrinbertsioa eta dena gauzatzeko aldi plana.

Idatz zati honetan aipatzen diren kasuetan berrinbertsioko plan berezia Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluko 1. idatz zatian aipatutako epealdian aurkeztu behar da.

5. Berrinbertitzeko plana betetzen ez bada, osorik zein zati bat, zergadunak bere zerga egoera erregularizatu behar du Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluko 5. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorritik.

Erregularizazioa egiteko proposatutako inbertsioaren eta benetan egindako inbertsioaren arteko proportzioa hartu behar da kontuan.

12. artikulua. Aparteko mozkinen berrinbertsioa: betebeharrak.

1. Zergadunek ondoko datuak eman behar dituzte urteko kontuen memorian:

- a) Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluan ezarritako araubideari heldutako errentaren zenbatekoa.
- b) Zerga oinarrian integratu ez diren errentak zer zergalditan sortu ziren.
- c) Ondare elementuen deskripzioa eta berrinbertsioa zer zergalditan gauzatu den.

2. Hau Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluko 4. idatz zatian aipatzen den aldiari bete behar da.

13. artikulua. Alderdi politikoaren ustiapen ekonomiko propioak, Zergatik salbuesita daudenak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 38. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako salbuespena aplikatu nahi duten alderdi politikoek eskaera aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari hark ondorioak sortu behar dituen zergaldia amaitu baino lehen.

Alderdi politikoak ondoko hauek aurkeztu behar dituzte eskaera idazkiarekin batera: eraketa eskrituraren eta estatutuen kopia soilak, Barne Arazoetako Ministerioaren Alderdi Politikoaren Erregistroan inskribatuta dagoelako ziurtagiria, eta salbuespena aplikatu nahi dion ustiapen ekonomikoa bere jardun propioa dela azaltzen eta frogatzen duen memoria.

Horretarako ustiapen ekonomikoa ondoko kasuetan hartuko da alderdi politikoaren jarduerari buruz:

- a) Zuzenean edo zeharka alderdiaren helburuak lortzen laguntzen duenean.
- b) Salbuespena aplikatzeak jarduerari berean aritzen diren enpresekiko lehiari distortsiorik sortzen ez duenean.
- c) Pertsona talde generikoak berdintasunean jasotzen duenean. Ondoko kasua ez da halakotzat hartuko: jardueraren jasotzaile nagusiak sustatzaileak, bazkideak, konpromisarioak eta zuzendaritza eta administrazioaren kideak eta beraien ezkontideak, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen ezarritakoaren arabera eraberritze izateko bikoteko kideak edo laugarren gradura arteko senitartekoak direnean, edo horiei zerbitzua erabiltzeko baldintza bereziak aplikatzen zaizkienean.

2. Zerga Administrazioak salbuespen eskaerak ebatziko ditu eta ebatzpenetan arrazoiak azalduko ditu. Salbuespena aplikatzeko ezinbestekoa da eten gabe betetzea Zergari

buruzko Foru Arauko 12. artikuluko 2. idatz zatian eta 38. artikuluan eta araudi honetako artikuluko honetan ezarritako baldintzak eta betekizunak.

Zerga Administrazioak sei hileko epealdian ebazpena jakinarazten ez badu, salbuespena emantzat hartu ahal izango da.

3. Aurreko idatz zatietan aipatutako salbuespena emanez gero, hurrengo zergaldietan aplikatzeko ez da egongo berriro eskatu beharrik, kasu hauetan izan ezik: salbuespena emateko kontuan hartutako inguruabarrak edo aplikatu beharreko arautegia aldatzen denean.

Salbuespena eman zaien alderdi politikoek hura aplikatzeko ezarritako inguruabarretan edo baldintzetan gertatzen diren aldaketa garrantzitsu guztien berri eman behar diote Zerga Administrazioari. Alderdi politikoari 10 eguneko entzunaldia eman ondoren Zerga Administrazioak salbuespena aplikatzen jarraitu dezakeenez ebatzi ahal izango du. Berdin jokatu da Zerga Administrazioak edozein bitartekoren bidez jakiten duenean salbuespena aplikatzeko inguruabarrak edo baldintzak aldatu direla.

4. Salbuespena aplikatzeko ezarritako baldintzak ez betetzeak berekin ekarriko du hori gertatzen den zergalditik aurrera salbuespena aplikatzeko eskubidea galtzea.

14. artikulua. Alderdi politikoek jasotako errentengatik atxikipenik edo konturako sarrerarik egin beharrik ez edukitzeko frogatu behar dutena.

Alderdi politiko batek Zergari buruzko Foru Arauko 38. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen den salbuespena aplikatu nahi badu, hau da, ez badu nahi eduki atxikipenik ez konturako sarrerarik egin beharrik, horren ziurtagiria eskatu behar dio Zerga Administrazioari. Eskaerarekin batera Barne Arazoetarako Ministerioko Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatuta dagoelako egiaztagiriaren kopia aurkeztu behar du.

Ziurtagirian bere indarraldia agertuko da: ematen denetik eskatzailearen zergaldia amaitu arte.

III. KAPITULUA

ZUZENKETAK BALORAZIO ARAUETAN ETA ABUSUAREN AURKAKO NEURRIETAN

Lehen atala

Nola zehaztu lotutako eragiketa batzuen merkatuko balio normala

15. artikulua. Bazkide profesionalen zerbitzuak.

Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoari dagokionez, zergapekoak ondoko guztiak gertatzen direnean pentsatu ahal izango du bazkide profesional batek (pertsone fisikoak) lotutako erakunde bati egindako zerbitzuaren balio hitzartua merkatuko balio normala dela:

- a) Erakundea Zergari buruzko Foru Arauko 13. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan ezarritakoetakoa izan behar da; ekitaldian lortutako sarreraren ehuneko 75 baino gehiago profesional jarduerak sortuak izan behar dira; baliabide material eta giza baliabide egokiak eduki behar ditu; ekitaldiko emaitza, bazkide profesional guztien ordainsarien kenkaria aplikatu baino lehen, positiboa izan behar da.
- b) Bazkide profesional guztiek erakundeari egindako zerbitzuengatik jasotako ordainsarien zenbatekoa ezin da izan a) letran aipatzen den kenkariaren aurreko emaitzaren ehuneko 85 baino gutxiago.
- c) Bazkide profesional bakoitzaren ordainsarien zenbatekoak baldintza hauek bete behar ditu:

1. Sozietatearen jardun onerako egindako kontribuzioaren arabera zehaztu behar da; ezinbestekoa da idatziz agertzea aplika daitezkeen irizpide kualitatiboak edota kuantitatiboak.

2. Ezin da izan sozietatean antzeko egitekoak dauzkaten soldatapeko langileen (bazkide profesionalena bezala dedikazioarekin ari direnen) batez besteko soldata baino gutxiago. Horrelako langilerik ez badago, ordainsarien zenbatekoa ezin da izan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 20. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran lantsaio osoko bazkideentzat ezarritako zenbatekoa (edo kasuan kasuko zenbateko proportzionala) halako bi baino gutxiago.

Bazkide profesional baten ordainsarien zenbatekoak ez badu betetzen zenbaki honetan ezarritako baldintza, horrek ez du eragotziko gainerako guztiei idatz zati honetan xedatutakoa aplikatzea.

Artikulu honetan ezarrita irizpideak kasu honetan bakarrik aplikatuko dira: zergapekoak bertan xedatutakoa aplikatzea hautatzen duenean.

Bigarren atala

Pertsona edo erakunde lotuen arteko eragiketak: dokumentazioaren inguruko betebeharrak

16. artikulua. Pertsona edo erakunde lotuen arteko eragiketei buruzko dokumentazioaren inguruko betebeharrak: salbuespenak eta informazio betebeharrak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 7. idatz zatian aipatzen den salbuespena eskatzeko ezinbestekoa da artikulu bereko 6. idatz zatian eta foru dekretu honetako ondoko artikuluetan ezarritako baldintza guztiak betetzea, bat izan ezik: eragiketa bakoitzerako finkatutako gutxienerako atalasea gainditu beharra.

Dokumentazioaren inguruko betebeharretatik salbu geratzeko prozedura (idatz zati honetan ezarri dena) araudi honetako 45. artikuluekin bat etorri izapidetuko da. Ebazteko eskumena Ogasun zuzendari nagusiak dauka; ebazpena eman aurretik egiaztapen murriztuaren prozedura izapidetu beharko da azaldutako betekizun guztiak betetzen direnez finkatzeko.

2. Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 5. idatz zatiko d) eta g) letretan eta artikuluko honetako bigarren idatz zatian xedatutakoa ez zaie aplikatuko zerbitzu hauei: pertsona fisikoa den bazkide profesional batek lotutako erakundeei egindako zerbitzuak, baldin eta ordainsariak lanaren edo jarduera ekonomikoen etekinak badira hartzailearentzat. Eragiketa horiei araudi honetako 15. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie, edo, bestela, hautapenez baliatzen ez bada edo han ezarritako betekizunak betetzen ez badira, dokumentazioaren inguruko betebeharren araubide orokorra.

3. Zergapekoek Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru aginduan ezartzen den bezala eman beharko dute lotutako eragiketen inguruko informazioa.

17. artikulua. Zerbitzugintzak, ordainsaria lanaren edo jarduera ekonomiko baten etekintzat jotzeko gero.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. idatz zatiko a) letran aipatzen den dokumentazio betebeharren salbuespena aplikatzeko baldintza hauek bete behar dira:

a) Lotutako pertsona fisikoak ordainsaria ematen dion erakundeari egindako lanak edo jarduerak motaren arabera bereizita dokumentatu behar dira (gerentziakoak edo zuzendaritzakoak, administratiboak, erosketen edo salmenten kudeaketakoak, eta bestelakoak).

Baldin eta lotutako pertsona fisiko batek lanaldi osoko dedikazioa ez badauka, frogatu egin behar da, Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. idatz zatiko a) letran aipatutako gutxieneko atalasea hainbanatzeko.

Bazkide diren hainbat pertsona fisikok erakunde bati zerbitzuak eginez gero, bakoitzak egiten dituen jarduerak edo lanak eta bakoitzaren ordainsariak zehazteko erabilitako irizpideak islatzen dituzten gizarte itunak dokumentatu behar dira.

b) Gerentziako edo zuzendaritzako lanak egiten dituzten pertsona fisiko lotuen ordainsaria ezin da izan halakoa izan gabe zerbitzu dedikazio baliokidearekin besteren kontura ari diren langileetatik diru gehien jasotzen duenarena baino gutxiago.

c) Ordainsariak banku transferentzia bidez eman behar dira, hilero urte guztian zehar; Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. idatz zatiko a) letran aipatzen den gutxieneko atalasea (edo hortik gorako zenbatekoa) kopuru bereko hamabi hilekotan zatitu behar da.

2. Pertsona fisiko batek lotutako hainbat erakunderi egiten badizkie zerbitzuak, Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. idatz zatiko a) letran ezarritako gutxieneko atalasea haien artean hainbanatu behar da bakoitzarentzat lanean egindako denboraren eta egindako lanen arabera.

Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. idatz zatiko a) letran eta artikuluko honetan ezarritako baldintzak betetzat jotzeko ezinbestekoa da, aurreko paragrafoan xedatutako guztia betetzeaz gainera, lotutako pertsonari erakunde guztiek ordaindutako guztirako zenbatekoa gutxienez Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. idatz zatiko a) letran finkatutako atalasea iristea.

18. artikulua. Finantzaketa eragiketak.

1. Lotutako pertsona edo erakundeen arteko finantzaketa eragiketei Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. idatz zatiko b) letran aipatzen den dokumentazioaren inguruko betebeharren salbuespena aplikatuko zaie, hain zuzen ere mailegu eragiketei eta emandako maileguen zenbatekoei zein merkataritzaz kanpoko aurrerakinei eta ordaindu gabeko ogibidesariei.

2. Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. idatz zatiko b) letran aipatzen den salbuespena aplikatzeko baldintza hauek bete behar dira:

- a) Eragiketa bakoitzaren inguruabarrak dokumentatu behar dira: korritu tasa, indarraldia, amortizazio kuoten eta korrituen mugaegunak (kopuruak nola kalkulatu diren berariaz zehaztuta), nondik sortu diren mailegarien esku jarritako kapitalak, itzulketak kargatzeko edo ordaintzeko eta korrituak ordaintzeko erabili diren banku kontuak. Gauza bera egin behar da bazkideekin eta administratzaileekin eduki diren kontu korronteei buruz.
- b) Eragiketen ondoriozko ordainketak zergaldi bakoitzean egin behar dira banku transferentziaren bidez (gutxienez transferentzia bat urtean).

19. artikulua. Ondasun higiezinak errentan edo azpierrean ematea eta haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubide errealak eratzea edo lagatzea.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. idatz zatiko c) letran aipatzen den dokumentazio betebeharren salbuespena aplikatzeko baldintza hauek bete behar dira:

- a) Eragiketa idatzizko kontratu baten bitartez formalizatu behar da, eta bertan ondokoak agertu behar dira labur-labur: higiezinaren ezaugarriak, eragiketan parte hartzen duten alderdien identifikazioa, iraunaldia, errentariak edo lagapen hartzaileak urtean ordaindu beharreko errenta, eta noiz eska daitezkeen higiezinaren errentamenduaren edo azpierrementuaren edo eskubide errealaren eraketaren edo lagapenaren kuotak.
- b) Eragiketen ondoriozko ordainketak zergaldi bakoitzean egin behar dira banku transferentziaren bidez (gutxienez transferentzia bat urtean).

2. Higiezinak ez badauka ezarrita gutxienerako balio eratzikigarria, hauxe hartuko da higiezinaren balioztatze: eskuraketa prezioaren (edo, hori baino gehiago bada, Administrazioak azken eskualdaketan egiaztatutako balioaren) ehuneko 80aren ehuneko 4a (tasa hau Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. idatz zatiko c) letran ezarri da), baldin eta eskualdaketa artikulua honetan ezarritako arauak aplikatu behar diren urtearen aurreko egutegiko lau urteetan egin bada.

Aurreko arauak aplikatu ezin badira, ehuneko 4ko tasa tasatzaile lokabe batek kontratua sinatutako eguna erreferentzia hartuta egindako higiezinaren tasazioaren ehuneko 80ari aplikatuko zaio.

3. Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. idatz zatiko c) letran edo artikulua honetako aurreko idatz zatian ezarritakoaren arabera zehazten den balioa

erreferentziatzen hartuko da kontratuaren iraunaldiko lehen urtean (datatik datara), eta ondoko lau urteetan urtero eguneratuko da kontsumoko prezioen indizearen urteko urterako aldakuntza aplikatuta, urte bakoitzeko erreferentziatzen Estatistikako Institutu Nazionalak berrikuspen egunaren aurretik argitaratutako azken balioa hartuta.

Bost urtean behin berriz kalkulatu beharko da higiezinaren balioa artikuluko honetan ezarritako metodoa aplikatuta.

20. artikulua. Gutxieneko atalaseak egokitzea.

Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. idatz zatian ezarritako zenbatekoak egokitzeko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak foru agindua emango du (eta ALHAOn argitaratuko da) Zerga Administrazioak egindako azterketa eta egiaztapenen arabera edo prezioen bilakaera orokorrak bultzatuta beharrezkotzat jotzen denean.

21. artikulua. Zergadunek kasu jakin batzuetan aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 4. idatz zatian ezarritako dokumentazio betebeharrak osorik eskatu ahal izango dira, ondoko kasuan izan ezik: eragiketan parte hartzen duen alderdi bat Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan aipatzen direnetako bat edo pertsona fisikoa bada eta eragiketa ez bada egin egoitza zerga paradisutzat jotako herrialde edo lurralde batean daukan pertsona edo erakunde batekin; halako kasuetan zergapekoaren dokumentazio betebeharrak ondoko hauek izango dira:

- a) Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 4. idatz zatiko a), b), c) eta e) letretan ezarritakoak, eragiketa arau bereko 43. artikuluko 5. idatz zatiko g) letrako 2. zenbakian azaltzen direnetako bat izanez gero.
- b) Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 4. idatz zatiko a) eta e) letretan ezartzen diren betebeharrak; arau bereko 43. artikuluko 5. idatz zatiko g) letrako 3. zenbakian zehazten den eragiketa bada, balioa zehazteko erabilitako magnitudeak, ehunekoak, ratioak, fluxu deskontuei aplikatu beharreko korritu tasak, igurikimenak eta gainerako baloreak ere bai.
- c) Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 5. idatz zatiko g) letrako 4. zenbakian azaltzen diren kasuetan, artikuluko bereko 4. idatz zatiko a), c) eta e) letretan ezarritako betebeharrak.
- d) Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluan ezarritakoa aplikatu ahal zaien profesional zerbitzua eginez gero, artikuluko bereko 4. idatz zatiko a) letran xedatutako betebeharra, eta horrez gainera araudi honetako 15. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direlako justifikazioa aurkeztu beharra ere bai.
- e) Gainerako kasuetan, Zergari buruzko Foru Arauko 4. idatz zatiko a) eta e) letretan ezarritako betebeharrak eta erabilitako balorazioaren metodoa eta horren ondoriozko balio tarteak identifikatu beharra.

2. Zergari buruzko Foru Arauko 46. artikuluko 2. idatz zatiko a) letran xedatutakoari dagokionez, artikuluko honetako aurreko idatz zatian xedatutakoa aplikatu behar den

kasuetan datu multzo banatzat joko dira artikuluko honetako aurreko idatz zatiko b), d) eta e) letretako bakoitzean aipatzen diren informazioak.

21 bis artikulua. [\(10\)](#) Informazioa herrialdeka xehatuta eman beharra.

1. Zergaren Foru Arauko 43. artikuluko 10. idatz zatian informazioa eman beharraz ezartzen dena betetzeko aurkeztu beharreko aitortenaren eredia Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren agindu baten bitartez onartuko da. Agindu berean aitortena nola aurkeztu behar den finkatuko da eta, behar izanez gero, betebeharra baliabide elektronikoaren bitartez zer kasutan eta nola bete behar den zehaztuko da.

2. Artikulu honetan aipatzen den informazioa zergaldia amaitzen denetik hamabi hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar da.

Hirugarren atala
Lotutako eragiketetan merkatuko balio normala egiaztatzea

22. artikulua. Merkatuko balio normala egiaztatzea.

1. Egiten den egiaztapen eta ikerketa prozedurako erregularizazioaren xede bakarra balorazio zuzenketa ez denean, horren ondoriozko likidazio proposamena akta batean jasoko da, hain zuzen ere zergapekoaren gainontzeko elementuengatik egin behar direnak ez beste batean. Akta horretan merkatuko balio normala nola zehaztu den justifikatu behar da (Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 4. idatz zatian ezarritako metodoetako bat) eta zergapekoak egindako balorazioaren zuzenketa eragin duten arrazoiak ondo azaldu behar dira.

2. Baldin eta, ondasunen edo eskubideen balioa Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauko 56. artikuluan ezarritako baliabideetako baten bidez egiaztatu behar dela eta, perituaren tasazio kontrajarria sustatu ahal bada eta zergapekoak tasazio hori eskatu ez badu edo ez badu aurkeztu errekurtsorik ez erreklamaziorik eta lotutako alderdi edo erakundearen artean akordiorik egon ez eta ondorioz perituaren tasazio kontrajarria errekurtsorekin edo erreklamazioarekin batera gertatzen bada, lehenengo tasazioa bideratuko da Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen den balioa zehazteko. Perituaren tasazio kontrajarriaren eskaeraren aurkezpenak etendura ondorioak izango ditu, Arabako Zergei buruzko Foru Arauko 129. artikuluko 1. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz, eta horrez gainera hauxe ekarriko du: perituaren tasazio kontrajarriarekin batera aurkeztutako errekurtsio eta erreklamazioak ez onartzea.

Aurreko paragrafoan aipatutako perituaren tasazio kontrajarriaren prozedura amaitu ondoren lotutako alderdiek edo erakundeek tasazioaren ondoriozko balioaren behin-behineko likidazioaren aurka berraztertzearen errekurtsioa edo administrazioarekiko diru erreklamazioa aurkeztea hautatu ahal izango dute.

3. Zergapekoari egindako likidazioa irmo bihurtutakoan Zerga Administrazioak lotutako gainerako pertsona edo erakundearen zerga egoera erregularizatuko du egiaztatutako balio irmoa aintzat hartuta eta behar den kasuetan berandutze korrituak onartuta.

Erregularizazioa likidazio baten bidez egingo da, hain zuzen ere irmotasuna gertatzen denean autolikidazioa aurkezteko epealdia amaituta dagoen azken zergaldiaren likidazioa. Zergak ez badauka zergaldirik, zergapekoari egindako likidazioa irmo bihurtzen denean bidezko den likidazioaren bidez egingo da erregularizazioa.

Likidazio horretan kontuan edukiko dira egiaztatutako balio irmoak Zerga Administrazioak egindako balorazio zuzenketak hartzen dituen zergaldi guztietan dauzkan ondorioak, eta behar den kasuetan berandutze korrituek dauzkaten ondorioak ere bai.

Horrez gainera, lotutako eragiketak eragina badauka Administrazioaren erregularizazioak hartzen duen zergaldiaren ondoko zergaldietan, zergapekoek zergaldi horietako aitorpenetan egiaztatutako balioa aplikatu beharko dute.

4. Artikulu honetan araututako prozedura ez zaie aplikatuko balorazio zuzenketak eragindako pertsona eta erakunde batzuei, hain zuzen ere Espainian ez egoitza ez establezimendu iraunkorrik ez dutenei, Zergari buruzko Foru Arauko 45. artikuluko 6. idatz zatiko d) letran xedatutakoarekin bat etorritz.

Balorazio zuzenketak eragindako pertsona edo erakunde baten egoitza Espainian ez badago (salbuespena: establezimendu iraunkorrak) eta pertsona edo erakunde horrek barne ordenamenduan sartutako itun edo hitzarmen bati heldu ahal badio, adiskidetasunezko prozedurara edo arbitrajezko prozedurara jo behar du balorazio zuzenketak sortutako zergapetze bikoitza ezabatzeko, Zergari buruzko Foru Arauko 45. artikuluko 6. idatz zatiko f) letran xedatutakoarekin bat etorritz.

5. Artikulu honetako aurreko idatz zatietan xedatutakoa gorabehera, lotutako pertsonak eta erakundeek aldebiko doikuntza eskatu ahal izango dute, are balorazioa irmoa izan baino lehen, baldin eta Arabako Foru Ogasunaren ikuskapen eskumenaren menpeko diren lotutako pertsona edo erakunde guztiak ados badaude. Hala gertatuz gero, Zergen Ikuskapenak denon zerga egoera erregularizatu ahal izango du batera.

Laugarren atala

Lotutako pertsona edo erakundeen arteko eragiketak aldeztatik baloratzeko akordioak

Lehenengo azpiatala

Zergapekoek eskatuta, lotutako eragiketei buruzko akordioa egiteko prozedura

23. artikulua. Aurreko jarduketak.

1. Pertsona edo erakunde batek Zerga Administrazioari eskatu nahi badio zehazteko lotutako pertsonen edo erakundeen artean egingo diren eragiketen merkatuko balio normala, aldeztatik aurreko eskaera aurkeztu beharko dio; eskaera horretan datu hauek eman behar ditu:

a) Eragiketak egingo dituzten pertsonen edo erakundeen identifikazioak.

b) Eragiketen azalpen laburrak.

c) Egin nahi den balorazio proposamenaren oinarritzko elementuak.

2. Zerga Administrazioak aldez aurreko eskaera aztertuko (interesdunari behar dituen azalpenak eskatu ahal izango dizkio) eta aldez aurreko balorazio akordioa bideragarria den edo ez jakinaraziko dio.

24. artikulua. Prozeduraren hasiera.

1. Lotutako pertsonak edo erakundeek euren artean egiteko diren eragiketen merkatuko balio normala aldez aurretik zehazteko eskatu ahal diote Zerga Administrazioari, araudi honetako 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorraren arabera eta artikulua honetan azaldu den bezala. Eskaeran merkatuko balioa oinarritzat hartuta egindako balorazio proposamena egongo da, proposatutako metodoa azalduko da eta analisi baten bidez frogatu behar da metodo hori aplikatzeko moduak lehia askearen printzipioa errespetatzen duela.

Eskaera pertsona edo erakunde eskatzaileek sinatu behar dute; horrez gainera Zerga Administrazioari frogatu behar diote baloratzeko eskatutako eragiketak egingo dituzten lotutako gainerako pertsonak eta erakundeek eskaeraren berri dutela eta onartzen dutela.

2. (11) Eskaerarekin batera Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 3. eta 4. idatz zatietan aipatzen diren agiriak aurkeztu behar dira, kasuan kasukoak eta balorazio proposamenari aplikatu ahal zaizkion heinean.

Balorazio proposamenaren ebazpenarekin informazio trukea egin behar bada beste estatu batzuekin edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakunde batzuekin, elkarren laguntzarako tresna bat dela bide, inguruabar hori berriaz adierazi behar da; nolahi ere, prozedura ebazteko eskuduna den zerga administrazioak ofizioz hartu dezake aintzat inguruabar hori. Aurrekoaz gainera, datu hauek ere adierazi behar dira:

a) Erakunde eskatzailea parte den merkataritzako taldearen edo talde fiskalaren identifikazioa; halaber jaso behar dira kontsultak eragindako erakunde ez egoiliar guztien identifikazio fiskaleko zenbakiak edo, halakorik izan ezean, kode baliokideak.

b) Balorazio proposamenean aipatutako enpresa jardueraren deskripzioa, edo egin diren edo egingo diren transakzioena zein transakzio segidena. Edonola ere, deskripzio hori egiterakoan erabat errespetatu behar dira sekretu komertzial, industrial edo profesionalaren arauak eta interes publikoa.

c) Balorazio proposamenean jasotako transakzioek edo eragiketek eragin liezaiekeen estatuak.

d) Balorazio proposamenaren ebazpenak eragin liezaiekeen beste estatu batzuetako pertsona egoiliarak.

e) Aplikatzekoa den elkarren laguntzari buruzko araudiaren ondorioz eska litezkeen beste datu batzuk.

3. Eskaera izapidetzea ez onartzea erabaki ahal izango da ondoko inguruabarretako bat gertatuz gero:

- a) Aplikatu nahi den balorazioaren proposamenak oinarririk ez edukitzea merkatuko balio normala zehazteko.
- b) Proposamena lehen ere onartu ez diren beste balorazio proposamen batzuen oso antzekoa izatea.
- c) Ez egotea proposamen balorazioaren bidez saihesteko moduko zergapetze bikoitzaren arriskurik.
- d) Egin nahi den proposamena gaitzetsiko dela pentsarazten duen beste edozein inguruabar.

4. Aurkeztutako agiriak atal honetan araututako prozeduraren inguruan bakarrik sortuko dituzte ondorioak, eta horrexetarako bakarrik erabiliko dira.

Proposamenean atzera eginez gero, iraungitzen bada edo ezesten badute, aurkeztutako agiriak itzuliko dira.

25. artikulua. Akordioaren izapidetzea eta ondorioak.

1. Zerga Administrazioak proposamena eta harekin batera bidalitako agiriak aztertuko ditu.

2. Araudi honetako 45. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen den epealdian berariazko ebazpena ematen ez bada, proposamena ezetsizat hartu ahal izango da.

3. Prozedura azkentzen duen ebazpenak zergapekoak aurkeztutako balorazio proposamena onartzen badu edo, hark onartuta, hasieran aurkeztutakoarekin bat ez datorren balorazio proposamen bat onartzen badu, aldez aurreko balorazio akordioa formalizatzen duen agirian gutxienez ondoko datu hauek agertu behar dira:

- a) Non eta noiz formalizatu den.
- b) Proposamenean agertzen diren zergapekoen izen-abizenak (edo sozietate izenak edo izendazio osoak) eta zerga identifikazioaren zenbakiak.
- c) Zergapekoen adostasuna akordioaren edukiarekin.
- d) Proposameneko eragiketen deskripzioa.
- e) Balorazio metodoaren eta beraren ondoriozko balio tartearen oinarritzko elementuak, eta horiek aplikatzeko oinarritzotzat jo behar diren inguruabar ekonomikoak, batez ere asuntzio kritikoak.

f) Akordioa zer zergaldi edo likidazio alditan aplikatu ahal izango den eta zer egunetan jarriko den indarrean.

4. Zerga Administrazioak eta zergapekoek onartutako proposamenetik ondorioztatzen dena aplikatu behar dute.

5. Zerga Administrazioak onartutako proposamenean azaltzen diren gertakariak eta eragiketak benetan gertatzen direnekin bat datozen egiaztatu ahal izango du, eta onartutako proposamena behar bezala aplikatu den edo ez.

Zerga Administrazioak egiaztatzen badu errealitatea ez datorrela bat onartutako proposamenean azaldutako gertakariekin eta eragiketekin, edo onartutako proposamena ez dela behar bezala aplikatu, zergapekoen zerga egoera erregularizatuko du.

6. Ez prozedura azkentzen duen ebazpenaren ez proposamena ezesten duen ustezko egintzaren aurka ezin da aurkeztu errekurtsorik. Aitzitik, ematen diren likidazio egintzen aurka errekurtsioak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira.

26. artikulua. Lotutako pertsona edo erakundeekin egindako eragiketak baloratzeko akordioa aplikatzeko informazioa.

Zerga honen, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioarekin batera zergapekoek onartutako alde zurreko balorazio akordioaren aplikazioari buruzko idazkia aurkeztu behar dute; bertan ondoko hauek zehaztu behar dira, besteak beste:

- a) Alde zurreko akordioa aplikatu zaion autolikidazioaren zergaldian edo likidazio aldian egindako eragiketak.
- b) Alde zurreko akordioaren aplikazioaren ondorioz zurreko eragiketek eduki dituzten prezioak edo balioak.
- c) Alde zurreko akordioan ezarritako balorazio metodoa aplikatzeko oinarritzotzat hartzen diren inguruabar ekonomikoen aldaketa garrantzitsuak, egonez gero.
- d) Zergaldian edo likidazio aldian egindako eragiketak, hain zuzen ere alde zurreko akordioan aipatzen direnen antzekoak direnak, eragiketa horien prezioak, eta beraien eta alde zurreko akordioaren esparruko eragiketen artean dauden ezberdintasunak.

Hala ere, beste administrazio batzuekin sinatzen diren akordioetan, zergapekoak urtero aurkeztu beharreko agiriak akordioan bertan ezarritakoak izango dira.

27. artikulua. Alde zurreko balorazio akordioaren aldaketa.

1. Alde zurreko balorazioaren akordioa onartzean aintzat hartutako inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatzen badira, akordioa aldatu ahal izango da inguruabar ekonomiko berrietara moldatzeko. Akordioa aldatzeko prozedura ofizios zekin zergapeko batek eskatuta abiatu ahal izango da, araudi honetako 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorarekin bat etorri eta artikulua honetan zehaztu den bezala.

2. Akordioa aldatzeko eskaera pertsona edo erakunde eskatzaileek sinatu behar dute. Horiek, gainera, Administrazioari frogatu behar diote baloratzeko eskatzen den eragiketak egingo dituzten lotutako gainerako pertsonak eta erakundeek badutela balorazio eskaeraren berri eta onartu dutela. Bertan ondokoak agertu behar dira:

- a) Inguruabar ekonomikoen aldaketa garrantzitsuaren justifikazioa.
- b) Aldaketa horren arabera bidezkoa den akordioaren aldaketa.

Eskatzaile batek eskaeran atzera eginez gero, akordioa aldatzeko prozedura azkenduko da.

Aurkeztutako agiriak aztertu ondoren Zerga Administrazioak entzunaldia emango die zergapekoei (15 eguneko epealdia edukiko dute) eta gero ebazpen arrazoitua emango du; hiru aukera daude:

a') Zergapekoek eskatutako aldaketa onartu.

b') Zergapekoenarekin bat ez datorren balorazio proposamena onartu, haien onarpenarekin.

c') Zergapekoek eskatutako aldaketa ezetsi eta hasieran onartutako alde zurreko balorazio akordioa berretsi edo baliogabetu.

3. Akordioa aldatzeko prozedura Zerga Administrazioak abiarazten badu, proposamenaren edukiaren berri emango zaie zergapekoei eta gero hauek hilabeteko epealdia edukiko dute proposamena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera ondokoak egiteko:

- a) Aldaketa onartu.
- b) Beste aldaketa bat proposatu, behar den bezala justifikatuta.
- c) Aldaketari uko egin (horretarako arrazoiak azaldu behar dituzte).

Aurkeztutako agiriak aztertu ondoren Zerga Administrazioak arrazoitutako ebazpena emango du; lau aukera daude:

a') Aldaketa onartu, zergapekoek onartu badute.

b') Zergapekoek eskatutako aldaketa onartu.

c') Hasierako balorazio proposamena onartu duen akordioa indargabetu.

d') Hasierako balorazio proposamena aplikatzen jarraituko dela adierazi.

4. Beste zerga administrazio batekin akordioa sinatuta edukiz gero, alde zurreko balorazio akordioa aldatzeko lehenbizi administrazio horrekin lotutako akordioa aldatu behar da. Horretarako araudi honetako 29. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozedura aplikatuko da.

5. Araudi honetako 45. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen den epealdian berariazko ebazpena jakinarazten ez bada, aldaketaren proposamena ezetsizat hartu ahal izango da.

6. Aldaketa prozedura azkentzen duen ebazpenaren edo prozedura ezesten duen uzteko egintzaren aurka ezin da aurkeztu errekurtsorik. Aitzitik, ematen diren likidazio egintzen aurka errekurtsioak eta erreklamazioak aurkeztu daitezke.

7. Aldaketaren onarpenak araudi honetako 25 ter artikuluan ezarritako ondorioak sortuko ditu aldaketa eskatu ondoren (edo aldaketaren proposamenaren berri eman ondoren) egiten diren eragiketei dagokienez.

8. Hasierako aldez aurreko balorazio akordioa indargabetzen duen ebazpenak berekin ekarriko du araudi honetako 25 ter artikuluan ezartzen diren ondorioak azkentzea aldaketa eskatu ondoren (edo aldaketaren proposamenaren berri eman ondoren) egiten diren eragiketei dagokienez.

9. Zergapekoek eskatutako aldaketa ezesteak berekin ekarriko du:

a) Araudi honetako 25. artikuluan ezarritako ondorioak berrestea, inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatu direla frogatzen ez bada.

b) Araudi honetako 25. artikuluan ezarritako ondorioak azkentzea eskaera ezetsi ondoren egiten diren eragiketei dagokienez, gainerako kasuetan.

28. artikulua. Aldez aurreko balorazio akordioaren luzapena.

1. Zergapekoek Zerga Administrazioari eskatu diezaiokete onartutako balorazio akordioaren indarraldia luzatzeko, araudi honetako 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorrarekin bat etorritz eta artikuluko honetan azaltzen denaren arabera. Eskaera hori akordioaren indarraldia amaitu baino sei hilabete lehenago aurkeztu behar da; berarekin batera hasierako eskaeran azaldutako egoera ez dela aldatu frogatzeko beharrezkotzat jotzen diren agiriak aurkeztu behar dira.

2. Aldez aurreko balorazio akordioa luzatzeko eskaera akordioa sinatu duten pertsonak edo erakundeek sinatu behar dute. Horiek, gainera, Zerga Administrazioari frogatu behar diote eragiketarako egingo dituzten lotutako gainerako pertsonak eta erakundeek badutela luzapen eskaeraren berri eta onartu dutela.

3. Araudi honetako 45. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen den epealdian aldez aurreko balorazio akordioaren indarraldiaren luzapena jakinarazten ez bada, eskaera ezetsizat jo ahal izango da.

4. Akordioa luzatzea onartzen duen ebazpenaren edo eskaera ezesten duen uzteko egintzaren aurka ezin da aurkeztu errekurtsorik. Aitzitik, ematen diren likidazio egintzen aurka errekurtsioak eta erreklamazioak aurkeztu daitezke.

Bigarren azpiatala
Beste zerga administrazioekin lotutako eragiketen gaineko akordioa adosteko
prozedura

29. artikulua. Aplikatuko diren arauak.

Beste zerga administrazio batzuekin akordioak egiteko prozeduran azpiatal honetan ezarritako arauak aplikatuko dira, bai eta kapitulu honetako xedapenak ere. Xedapen horiek, halaber, ondoko kasuan ere aplikatuko dira: beste zerga administrazio batek Zerga Administrazioari eskatzen dionean lotutako pertsona edo erakundeen artean egindako eragiketak baloratzeko akordioa sinatzeko prozedura hasteko.

30. artikulua. Prozeduraren hasiera.

1. Zergapeko batek eskatzen badu aurkeztutako proposamena lotutako pertsona edo erakundeek egoitza duten herrialde edo lurralde bateko beste zerga administrazio bati ere aurkezteko, Zerga Administrazioak prozedura horri ekin behar zaionez erabakiko du. Prozedura ez hastea erabakiz gero, arrazoiak eman beharko ditu. Erabaki hori ezin izango da aurkaratu.

2. Aldez aurreko balorazio baten prozeduran Zerga Administrazioak erabakitzen badu proposamena eragina jasan dezakeen beste zerga administrazioen bati aurkezte behar zaiola, lotutako pertsona eta erakundeei jakinaraziko die. Zergapekoaren onarpena ezinbestekoa izango da beste zerga administrazioari proposamenaren berri emateko.

3. Zergapekoak araudi honetako 24. artikuluan ezarritako agiriak aurkeztu beharko ditu prozedura hasteko eskaerarekin batera.

31. artikulua. Izapideak.

1. Beste zerga administrazioekiko harremanetan lotutako pertsonak edo erakundeek behar diren balorazio proposamenaren inguruko datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak eman beharko dituzte.

Zergapekoek akordioa zehazteko jarduketetan parte hartu ahal izango dute, baldin eta bi zerga administrazioetako ordezkariak hitzartzen badute.

2. Zerga administrazioen akordio proposamena interesdunei jakinaraziko zaie. Onarpena ezinbestekoa izango da administrazioek akordioa sinatzeko.

Interesdunak akordio proposamenarekin ados ez badaude, ezetsizat joko da.

3. Akordio proposamena onartuz gero, organo eskudunak eta beste zerga administrazioek sinatuko dute eta interesdunei kopia helaraziko zaie.

Hirugarren azpiatala
Azpikapitalizazio koefizienteari buruzko alde zurrerako akordioak

32. artikulua. Beste azpikapitalizazio koefiziente bat zehazteko prozedura: aplikazioa.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 47. artikuluko 4. idatz zatiko kasuetan, beste azpikapitalizazio koefiziente bat zehazteko prozeduran araudi honetako 24 - 28 bitarteko artikuluetan ezarritako arauak aplikatuko dira, artikulua honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. Gainera, zergapekoek Zerga Administrazioari aurkeztu ahal izango diote Zergari buruzko Foru Arauko 47. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoa ez beste koefizientea bat aplikatzeko proposamena, artikulua bereko 4. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz. Horrekin batera ondokoak aurkeztu behar dira:

- a) Erakundearen urteko kontuak.
- b) Zergapekoaren ustez lotu gabeko pertsonekin edo erakundeekin merkatuko egoera normalean hartu ahal izango zuen zorra, erreferentziatzat erakundeak zergen ondorioetarako daukan kapitala hartuta, eta horren justifikazioa.
- c) Erakundea kide den sozietate taldearen deskripzioa.
- d) Erakundeak zorra daukan edo edukiko duen lotutako erakundeen identifikazioa.
- e) Proposatzen den zorpetze koefizientea eta horren justifikazioa (aplikatzeko oinarritzat jo behar diren inguruabar ekonomikoak azpimarratu behar dira).

III bis KAPITULUA
ZUZENKETAK EMAITZAREN APLIKAZIOAN

32 bis artikulua. Ekintzaitza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezia.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 53. artikuluko 2. idatz zatiko a) eta b) letretan ezarritakoari dagokionez, inbertsio batek kenkarirako eskubidea emateko ezinbestekoa da foru arau horretako 61. eta 65.2 artikuluetan ezarritako baldintza guztiak betetzea, hurrenez hurren.

2. Bateran zein bestera, Zergari buruzko Foru Arauko 67. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da, batez ere 3. eta 5. idatz zatietan ezarritakoa, arau bereko 53. artikuluan ezarritakoaren aurka ez dagoen heinean.

IV. KAPITULUA
SARREREN ETA GASTUEN ALDI EGOZKETA. SORTZAPENA EZ BESTE IRIZPIDE
BATZUK ONARTZEA

33. artikulua. Sortzapena ez beste egozketa irizpide batzuk onartzea.

1. Kontabilitatean sarreren eta gastuen aldi egozketarako sortzapena ez beste irizpide bat erabiltzen duten erakundeek irizpide horrek zerga eraginkortasun edukitzea eskatu ahal izango dute. Eskaera Zerga Administrazioari aurkeztu behar zaio eta beraren aurrean izapidetu behar da araudi honetako 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorraren arabera, artikulua honetako ondoko idatz zatietan arautu denarekin bat etorritz.

2. Eskaeran ondoko datu hauek agertu behar dira:

- a) Aldi egozketarako irizpideak ukitzen dituen sarreren eta gastuen azalpena (nolakoak diren eta subjektu pasiboaren eragiketetan nolako garrantzia duten zehaztu behar da).
- b) Zerga eraginkortasuna edukitzea eskatzen den aldi egozketarako irizpidearen azalpena. Aldi egozketarako irizpidea nahitaez aplikatu behar izanez gero, betebeharra ezartzen duen kontabilitate araua zehaztu behar da.
- c) Proposatutako aldi egozketarako irizpidea urteko kontuek eman behar duten irudi zehatzerako egokia delako justifikazioa eta zergadunaren ondarean, finantza egoeran eta emaitzetan daukan eraginaren azalpena.

3. Eskaera ondorioak sortu behar dituen lehen zergaldia baino sei hilabete lehenago gutxienez aurkeztu behar da.

4. Zergari buruzko Foru Arauko 54. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren paragrafoan aipatzen diren kasuetan, artikulua honetako 1. idatz zatiko eskaeran ondoko datu hauek agertu behar dira:

- a) Aldi egozketarako irizpideak ukitzen dituen sarreren eta gastuen azalpena.
- b) Eskatzen den irizpidea aplikatzea justifikatzen duten erakundearen ezaugarriei buruzko memoria.
- c) Proposatutako aldi egozketarako irizpidea aurreko letran aipatutako ezaugarrietarako egokia delako justifikazioa.
- d) Irizpidearen aplikazioak erakundearen sarreren edo gastuen zerga kalifikazioa aldatuko ez duelako justifikazioa.

III. TITULUA ZERGA ZORRA

34. artikulua. Aktibo finko berrietan inbertitzeagatik aplika daitekeen kenkaria.

Legezko lagapen betebeharra betetzeko eskuratutako aktiboen kasuan, erakunde lagapen hartzaileak ezin izango du aplikatu Zergari buruzko Foru Arauko 61. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan aipatzen den kenkaria. Lagapen hartzaileak aktibatutako zenbatekoak ez dira konputatuko ez ekitaldiko inbertsio gisa ez aurreko aktibo gisa, lehen aipatutako 61. artikuluko 3. idatz zatiko d) letran ezarritakoa betetzeko.

35. artikulua. Ikerkuntza, garapen eta berrikuntza teknologikoaren jarduerengatik kenkaria aplikatzeko arrazoitutako txostena.

1. Gaiaren arabera eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko saila edo hari atxikitako erakunde edo entitate bat izango da Zergari buruzko Foru Arauko 64. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren txosten arrazoituak emateko eskumena daukan organoa.

2. Arrazoitutako txostena ("zerga ondorioetarako kalifikazio txostena") emateko eskaera urtero aurkeztu behar zaio organo eskudunari abenduaren 31 baino lehen. Eskatzailea nor den eta zertan diharduen adierazteaz gainera proiektua azaldu behar da memoria baten bidez.

Memorian eskatzaileak eta berak azpikontratitzen dituen pertsonak edo erakundeek egingo dituzten jarduerak zehaztu behar dira, bai eta proiektuak eragingo dituen gastuen eta inbertsioen zenbatekoak ere, urteka banatuta.

3. Proiektuak beste erakunderen batzuekin lankidetzan egiten badira, proiektu bakoitzeko eskaera bakar bat aurkeztu behar da urtero, erakunde guztiek sinatuta, eta partaideetako bat izendatu behar da solaskidea izateko, harremanetan aritzeko eta jakinarazpenak jasotzeko. Proiektuaren memorian parte hartzen duen erakunde bakoitzak zer egingo duen eta zenbateko aurrekontua edukiko duen zehaztu behar da.

Txosten bana emango zaie proiektuan parte hartzen duten erakundeei.

4. Erakunde bati proiektu batean dagokion aurrekontua milioi bat eurotik gorakoa bada, txosten arrazoitua emateko nahitaezkoa izango da erakunde horrek urte horri eta proiektu horri dagokien txosten tekniko aurkeztea organo eskudunari, hain zuzen ere jarduerak kalifikatu eta ikerketari eta garapenari edo berrikuntza teknologikori lotutako gastuak eta inbertsioak identifikatzen diren txosten teknikoak. Kalifikaziorako txosten tekniko hori Akreditaziorako Lankidetzako Europako Elkarteko erakunde batek behar bezala akreditatutako erakunde batek emandakoa izan behar da.

5. Nolanahi ere, organo eskudunak erakunde eskatzaileengana jo dezake aurkeztu duten eskaera egoki ulertu, izapidetu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak eta datuak eskatzeko.

6. Organo eskudunak ematen dituen txosten arrazoituek behar bezala banakatuta identifikatu behar dituzte egin beharreko jarduerak, Zergari buruzko Foru Arauko 62. eta 63. artikuluetan ezarritako kontzeptuak aintzat hartuta, eta bakoitzari berari lotutako gastuak eta inbertsioakegotzi behar dizkiote.

36. artikulua. Txostenaren ondorioak eta Zerga Administrazioaren ahalmenak.

1. Aurreko artikuluan aipatutako organo eskudunak emandako txosten arrazoituak lotesleak izango dira Zerga Administrazioarentzat jardueraren izaerari dagokionez eta hura ikerketa, garapen edo berrikuntzako jardueratzat kalifikatzeko.

2. Zerga Administrazioak inbertsioak eta gastuak benetan egin direnez egiaztatu behar du, bai eta egindako jarduerak eta txostenean aipatutakoak bat datozen ere. Horretarako beharrezkotzat jotzen dituen frogabideak eskatu ahal izango ditu noiznahi.

3. Zergari buruzko Foru Arauko 62. eta 63. artikuluetan aipatutako kenkariak Zerga Administrazioak eskatuta aurreko artikuluan aipatutako txosten arrazoitua aurkezten duten zergadunek aplikatu ditzakete.

Era berean, Zerga Administrazioak araudi honetako 35. artikuluko 1. idatz zatian aipatutako organoari eskatu diezaioke txosten osagarria egiteko zergadun baten jardueren izaeraz eta kalifikazioaz (ikerketa, garapena edo berrikuntza).

4. Bidezko kasuetan Zerga Administrazioak txostena eskatu ahal izango dio gaiaren arabera eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko sailari kenkarirako eskubidea ematen duten jardueren izaeraz eta kalifikazioaz.

37. artikulua. Garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzeko proiektuekin loturiko inbertsioengatik eta gastuengatik aplikatu daitezkeen kenkaria.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 65. artikuluko 2. idatz zatiko b) letran xedatutakoa aplikatzeko, garapen iraunkorraren eta ingurumen babes eta hobekuntzaren esparruko proiektutzat hartuko dira ondoko gai hauek xede dituztenak:

a) [\(2\)](#) Hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta balorizatzea. Halakotzat hartuko dira norberaren zein beste batzuen hondakinak murrizten saiatzen direnak, uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, hondakinenak eta lurzoru kutsatuenak, eta berau garatzen duen araudiak emandako definizioen arabera. Horretarako, balioztatzearen barruan sartzen dira birziklatzea (konpostajea eta biometanizazioa barne) eta balorizazio energetikoa.

b) Mugikortasun eta garraio iraunkorra. Halakotzat hartuko dira emisio kutsagarriak murriztea lortzen dutenak, haien legezko definizioaren arabera, edo erregai fosilen kontsumoa murriztea dakartenak.

c) Naturguneetako ingurumena leheneratzea, konpentsazio neurriak edo bestelako borondatezko ekintzak gauzatzearen ondorioz. Halakotzat hartuko dira natura ingurunearen ingurumen kalitatea hobetzeko bide ematen dutenak, ekosistemen egitura eta funtzionamendua berrezartzea dela medio.

Kenkariaren oinarriaren barruan sartzen dira leheneratze jardueretan egiten diren gastuak, hain zuzen ere administrazio ebazpen batean ezarritako borondatezko konpentsazio neurrien ondorioz edo natura ingurunean eragina duten eta inbertitzailearen aktibo ibilgetuaren osagai diren edo izango diren borondatezko bestelako ekintzen ondorioz egiten direnak.

- d) Ur kontsumoa minimizatzea eta ura araztea. Holakotzat hartuko dira hobekuntza dakartenak, legez ur arazketari buruz dituzten eginbeharren aldetik, nahiz inbertsioaren aurreko ur kontsumoen aldetik.

Ur kontsumoaren aurrezpenetat edo uraren arazketatzat hartuko dira instalazioetan aurrerakuntza teknologikoak ezartzeko egindako inbertsioaren ondorioz lortutako emaitzak.

- e) Energia berriztagarrien erabilera. Holakotzat hartuko dira iturri berriztagarrien baliakuntzei berez dagozkienak, beraiek sortutako energia zuzenean inbertitzailearen instalazioetan bertan kontsumitzeko nahiz banaketa sareetan sartzeko erabiltzen dela.

Sortutako energia berriztagarria banaketa sareetan sartzen denean, zergadunak bere jarduera ekonomikoa egiten duen eta bereak diren instalazioetan egin beharko dira inbertsioak, eta jarduera ekonomiko hori, ezinbestean, energia berriztagarria sortzeko eta merkaturatzeko jardueraz bestelakoa izan beharko da.

- f) Energia eraginkortasuna. Halakotzat hartuko dira inbertitzailearen energia intentsitatea murriztea dakartenak.

Horretarako, hauxe da energia intentsitatea: kontsumitutako energia kopurua produktu unitateko (energia kontsumo espezifikoa) edo, zerbitzuen sektoreko enpresen kasuan, negozioen zifraren zenbateko garbiarekiko heinean (energia aurrezpena).

- 2.** Aurreko 1. idatz zatian zehaztutako murrizketak edo hobekuntzak proiektua gauzatzen hasten den lehenengo zergaldiaren aurreko zergaldirako kalkulatuko dira.

Enpresa berria ezartzen denean, murrizketak edo hobekuntzak gaiaren arabera eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko saileko foru diputatuaren foru agindu baten bitartez zehaztuko diren funtzionamendu eredu estandarrak aplikatuz kalkulatuko dira.

- 3.** Proiektu bakoitzeko, murrizketaren aplikazioa zergadunak kenkaria aplikatzen duen lehenengo zergaldia bukatu baino lehen jakinarazi behar zaio idazki baten bidez gaiaren arabera eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko sailari.

Jakinarazpenean ondoko datu hauek agertu behar dira gutxienez:

- a) Proiektuaren deskripzio zehatza: zein den xedea eta artikulua honetako 1. idatz zatiko zer kasutan dagoen.
- b) Egin beharreko inbertsioen planaren kuantifikazioa eta inbertsioak gauzatzeko egutegia.
- c) Erabili beharreko teknologia, beraren jatorria eta dauden erreferentziak.

- d) Sektoreko administrazioak edo erakunde homologatu batek emandako baimena, adostasun txostena edota ziurtapena.

Eskaera aurkeztean horrelakorik eduki ezean, kenkaria eman ondoren aurkeztu beharko dira, ezinbestean.

4. Zergari buruzko Foru Arauko 65. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioak zergadun bati eskatzen badio gaiaren arabera eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko sailak emandako ziurtagiria aurkezteko, sei hilabete pasatu baino lehen aurkeztu beharko du. Ziurtagiriak adierazi behar du inbertsioak egokiak direla kenkaria aplikatzeko.

Epealdi horretan zergadunak ziurtagiria aurkezten ez badu eta arrazoia berari egotzi ahal bazaio, kenkaria aplikatzeko eskubidea galduko du.

Orobat, zergadunak ziurtagiri hori bere borondatez aurkeztu ahal izango du Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioarekin batera kenkari hau aplikatu ahal izateko.

38. artikulua. Enplegua sortzeagatik aplika daitezkeen kenkaria.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 66. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan xedatutakoa dela bide gehitutako kenkaria aplikatzeko ondoko baldintza hauek bete behar dira:

- a) Kontratazioa egiten den zergaldiaren amaieran lan kontratu mugagabearekin ari diren kontratatzeke eragozpen handiko taldeetako langileen kopurua ez murriztea hurrengo b urteetan amaitzen diren zergaldietan, eta gainera lan kontratu mugagabearekin ari diren kontratatzeke eragozpen handiko taldeetako langileen kopurua kenkaria sortzen den zergaldiaren hasieran bano handiagoa izatea eta gehikuntza gehitutako kenkarirako eskubidea ematen duten kontratuen kopurua izatea gutxienez.
- b) Lan kontratu mugagabearekin ari diren kontratatzeke eragozpen handiko taldeetako langileen kopuruaren gehikuntza (Zergari buruzko Foru Arauko 66. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren paragrafoa) kontratazioak egin diren zergaldiaren aurreko zergaldikoa baino handiagoa izatea eta gehikuntza gehitutako kenkarirako eskubidea ematen duten kontratuen kopurua izatea gutxienez (horretarako artikuluko honetako 2. idatz zatiko erregelak aplikatuko da).

Idatz zati honetan ezarritako betekizunak betetzen ez badira, zergadunak ez betetzea gertatzen den zergaldiko autolikidazioan kenkaria gehitzearen ondoriozko kuota sartu behar du, eta horrekin batera beraren berandutze korrituak ere bai.

2. Zergari buruzko Foru Arauko 66. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko kontratazioak egin diren zergaldiaren aurreko zergaldiko egun guztietan egon diren langileen kopurua hartuko da aintzat.

IV. TITULUA

ZERGA ARAUBIDE BEREZIAK

39. artikulua. Definizioa.

Zerga araubide bereziak Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluan arautu dira, dela ukitutako zergadunen izaeragatik, dela egitate, egintza edo eragiketen izaeragatik.

40. artikulua. Arautegi osagarria.

Zergari buruzko Foru Arauko gainerako tituluetakoa arauak VI. tituluko osagarri gisa aplikatuko dira.

41. artikulua. Espainiako nahiz Europako interes ekonomikoko elkartzeen eta enpresen aldi baterako batasunen betebeharrak.

1. (9) Zergaren Foru Arauko VI. tituluko III. kapituluaren ezarritako araubide berezia aplikatu ahal zaien Espainiako eta Europako interes ekonomikoko elkartzeek zergaren autolikidazioarekin batera zergaldiko azken egunean Espainiako lurraldeko egoiliar izan diren bazkideen zerrenda aurkeztu behar dute, edo bazkidetasunari datxezkion eskubide ekonomikoak dituzten pertsona edo erakundearen zerrenda. Bertan datu hauek agertu behar dira:

a) Bazkideen edota bazkidetzari lotutako eskubideak dauzkaten pertsona edo erakundearen identifikazioa, zerga egoitza eta partaidetza ehunekoa.

Ildo horretatik, bazkideak banaka identifikatu beharko dituzte haien ekarpenak kontabilitate irizpideen arabera ezaugarri bereziak dituzten ondare tresnatzat jo behar badira.

b) (12) Guztira egotzi beharreko zenbatekoak ondoko kontzeptu hauek kontuan hartuta:

1. Kontabilitateko emaitza.

2. Zergaldian interes ekonomikoko elkartean kendu ez diren finantza gastu garbiak, Zergaren Foru Arauaren 25.bis artikulua arabera.

3. Zerga oinarria.

4. Zergapetzebikoitza saihesteko kenkariaren oinarria, errentak sortu dituen erakundearen mota eta beraren partaidetza ehunekoa.

5. Zergaren Foru Arauaren V. tituluko III. kapituluaren ezarritako kenkariaren eta interes ekonomikoko elkarteei aplikatu dakiekeen beste edozeinen oinarria, salbu eta Zergaren Foru Arauaren 62. artikulutik 64. artikulura aurreikusitako kenkariaren oinarria, kontabilitate irizpideen arabera ezaugarri bereziak dituzten ondare tresnatzat kalifikatu behar diren interes ekonomikoko elkarteei ekarpenak egiten dizkieten bazkideei dagokienez.

6. Interes ekonomikoko elkartearen atxikipenak eta konturako sarrerak.

2. (9) Interes ekonomikoko elkartzeek euren bazkideei edo bazkidetzari datxezkion eskubide ekonomikoak dauzkaten pertsona edo erakundeei jakinarazi beharko dizkiete egotzi beharreko guztirako kopuruak eta bakoitzari aurreko idatz zatiko b) letran ezarritako kontzeptuen arabera egotziko zaiona, baldin eta zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera egotzi ahal bazaizkie.

Halaber, kapitalari egindako ekarpenen zenbatekoaren berri eman beharko diete bazkideei haien ekarpenak kontabilitate irizpideen arabera ezaugarri bereziak dituzten ondare tresnatzat jo behar badira.

3. Zergari buruzko Foru Arauko 73. artikuluko 3. idatz zatiko lehenengo paragrafoan ezarritakoaren arabera dibidenduak eta mozkin partaidetzak kargapean ez egotea dela eta, elkartzeek ondoko informazioa eman behar dute urteko kontuen memorian:

- a) Zerga araubide orokorrean ordaindu duten zergaldietako erreserben kargura banatutako mozkinak.
- b) Zerga araubide berezian ordaindu duten zergaldietako erreserben kargura banatutako mozkinak. Egoitza Espainian duten bazkideei dagozkienak eta ez dutenei dagozkienak berezi behar dira.
- c) Erreserben kargura dibidenduak eta mozkin partaidetzak banatuz gero, zer erreserbaren kargura banatu diren (aurreko a) eta b) letretan zehaztutako hiru mozkin motetako bat).

4. Aurreko idatz zatian ezarritakoaren arabera urteko memorian aipatu beharrekoak idatz zati horretako b) letran aipatutako erreserbak dauden artean aipatu behar dira, nahiz eta erakundeak Zerga araubide berezian ordaindu ez.

5. Artikulu honetako 3. eta 4. idatz zatietan informazioaz ezarritako betebeharrak 3. idatz zatiko b) letran aipatutako erreserben titulartasuna duten hurrengo erakundeei ere eskatu ahal izango zaizkie.

6. Artikulu honetako aurreko idatz zatietan xedatutakoa, aplikatu beharra dagoen heinean, bete beharrekoa izango da Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluko III. kapituluan ezarritako araubide berezian dauden enpresen aldi baterako batasunentzat zergaldiko azken egunean egoitza Espainiako lurraldean duten batasuneko enpresei dagokienez.

41 bis artikulua. (9) Ekonomia-intereseko elkartzeetako bazkideei zenbatekoak egozteko muga.

1. Zergaren Foru Arauaren 73. artikuluko 1. zenbakiko b) letran muga bat ezartzen da ekonomia-intereseko elkartzeetako bazkideentzat, bazkideok elkartzeari egindako ekarpenak kontabilitate-irizpideen arabera ezaugarri berezidun ondare-tresna gisa kalifikatu behar diren kasurako; bada, muga hori modu orokorrean aplikatuko da bazkideek elkartzean duten partaidetza mantentzen duten zergaldi guztietan.

2. Zergaldi batean zenbateko batzuk egotzi gabe geratu badira aurreko zenbakian aipatutako mugaren ondorioz, egotzi gabeko horiek hurrengo zergaldietan egotzi ahal izango dira, zergaldi bakoitzean errespetatu beharreko muga errespetatuta betiere.

42. artikulua. Zerga baterakuntzaren araubidearen aplikazioa eta horri heldutako erakundeen informazioaren inguruko betebeharrak.

1. Zergadunak Zerga Administrazioari jakinarazi behar dio zerga baterakuntzaren araubidea aplikatzea nahi duela.

Jakinarazpenean datu hauek eman behar dira:

a) Zerga taldeko sozietateen identifikazioa.

Espainiako lurraldeko egoiliar ez izanik taldeko sozietate nagusi diren erakundeen establezimendu iraunkorrei dagokienez, zerga taldeko sozietateak ez ezik establezimendua atxikita dagoen Espainiako lurraldeko egoiliar ez den erakundea ere identifikatu behar da.

b) Zerga baterakuntzaren araubidea aplikatzeko taldeko sozietateek hartutako erabakien kopiak.

c) Sozietate nagusiak zerga taldeko sozietate bakoitzean zuzenean nahiz zeharka daukan partaidetzaren ehunekoa eta partaidetza noiz eskuratu duen.

Sozietate nagusiak Zergari buruzko Foru Arauko 85. artikuluan ezarritako guztia betetzen duela adierazi behar du.

2. Zerga Administrazioak zerga taldeari emandako zenbakiaren berri emango dio sozietate nagusiarri.

43. artikulua. Ondokoen araubide berezia: bategiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak, aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoak, eta Europako sozietate edo sozietate kooperatibo baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzea.

1. Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluko VII. kapituluan ezarritako araubidea aplikatzeko ezinbestekoa da zergadunak hautatzea foru arau horretako 114. artikuluko 3. idatz zatian xedatu den bezala.

2. Zerga Administrazioari hautapenaren berri eman behar zaio artikuluko honetan ezarritakoarekin bat etorritz.

3. Hautapenaren jakinarazpena eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa inskribatzen den egunaren ondoko hiru hiletan egin behar da.

Inskripzioa beharrezkoa ez bada, eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa egilesten den egunetik aurrera zenbatuko da epealdia. Eskrituran, Zergari buruzko Foru Arauko 114. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoaren arabera, nahitaez adierazi behar da araubidea hautatu dela.

Sozietatearen egoitza aldatuz gero, hautapenaren jakinarazpena eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoan edo agiri baliokidean ezarritako egoitza berria Batasuneko estatuaren erregistroan inskribatu ondoko hiru hiletan egin behar da.

4. Bategite eta zatiketetan, aurreko idatz zatian aipatutako jakinarazpena erakunde eskuratzailerak egin behar du (bat baino gehiago izan daitezke).

Bategite edo zatiketetan ez erakunde eskualdatzailerak ez erakunde eskuratzailerak ez badaukate zerga egoitza Espainian, edo eskualdatzailerak Espainian establezimendu iraunkorrik ez daukala eta Zergari buruzko Foru Arauko 102. artikuluan ezarritako araubidea aplikatu ezin bada, araubide bereziaren hautapena ukitutako bazkide egoiliarrek egin behar du. Halaber, ondoko kasuan ere horrek berak egin behar du hautapena: zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazio eremuan hala ezartzen denean.

5. Dirua ez beste zerbaiten ekarpenetan eta aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoetan, jakinarazpena erakunde eskuratzailerak egin behar dute.

Erakunde horiek ez badaukate egoitza Espainian eta ez badute bertan jarduten establezimendu iraunkorraren bidez, hautapena jakinarazi beharra pertsona edo erakunde eskualdatzailerak dauka.

6. Balore trukeetan, jakinarazpena erakunde eskuratzailerak egin behar du.

Ez baloreak eskuratzen dituen erakundeak ez baloreok trukutzen dituen erakunde partaidetuak ez badauka egoitza Espainian, araubide bereziaren hautapena eragiketarak ukitutako bazkide egoiliarrek egin behar du. Halaber, ondoko kasuan ere horrek berak egin behar du hautapena: zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazio eremuan hala ezartzen denean.

7. Sozietatearen egoitza aldatzeko eragiketetan, jakinarazpena sozietateak berak aurkeztu behar du.

8. Jakinarazpenean eragiketan parte hartzen duten erakundeak identifikatu behar dira eta eragiketa azaldu behar da. Behar den kasuetan, jakinarazpenarekin batera ondoko agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Bategite eta zatiketetan, Merkataritza Erregistroan inskribatutako bategite edo zatiketaren eskritura publikoaren kopia, bai eta merkataritzako arautegiaren arabera eskritura Erregistroan inskribatzeko nahitaez erantsi behar zaizkien agiri guztien kopiak ere.

Inskribatzea beharrezkoa ez bada, eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoaren kopia. Eskritura horretan nahitaez agertu behar araubidea hautatu dela, Zergari buruzko Foru Arauko 114. artikuluko 3. idatz zatian ezarri den bezala.

b) Dirua ez beste zerbaiten ekarpenetan, aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoetan eta balore trukeetan, sozietatearen eraketaren eskritura publikoaren kopia edo kapitalaren

gehikuntzarena, bai eta merkataritzako arautegiaren arabera eskriturari nahitaez erantsita behar zaizkion agirien kopia ere.

Eraketaren edo kapitalaren gehikuntzaren eskritura beharrezkoa ez bada, eragiketa dokumentatzen duen eskrituraren kopia.

- c) Eragiketa akzioak eskuratzeko eskaintza publiko baten bidez egin bada, liburuxka informatiboaren kopia ere aurkeztu behar da.
- d) Sozietatearen egoitza aldatuz gero, eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoaren edo agiri baliokidearen kopia eta sozietatea egoitza berria dagoen Batasuneko estatuaren erregistroan inskribatzeko nahitaez erantsi beharreko agiri guztienak.

9. Zergari buruzko Foru Arauko 107. artikuluko 3. idatz zatiko bigarren paragrafoan aipatzen diren kasuetan erakunde eskuratzailleak ondoren azalduko diren datuak eman behar ditu artikuluko horretan ezarritakoa (kopuru batzuk zerga oinarria ez integratzea) aplikatzen den ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioarekin batera:

- a) Erakunde eskualdatzailearen identifikazioa eta beraren partaidetzaren ehunekoa.
- b) Erakunde eskualdatzailearen partaidetzen balioa eta bakoitzaren eskuraketa data, eta partaidetza horiei dagozkien funts propioen balioa, homogeneizatutako urteko kontuak oinarritzat hartuta zehaztuta.
- c) Partaidetzen eskuraketa prezioaren eta haiei dagozkien funts propioen balioaren arteko diferentzia erakunde eskualdatzailearen ondasunei eta eskubideei egozteko erabili diren balio eta aldi homogeneizaziorako irizpideen justifikazioa.

44. artikulua. Higiezinaren errentamenduaren kualifikazioa daukan jarduera egiten duten erakundearen araubide bereziaren aplikazioa hautatzea.

Higiezinaren errentamenduaren kualifikazioa daukan jarduera egiten duten erakundearen araubide bereziaren hautapena Zerga Administrazioa jakinarazi behar zaio.

Horren berri emateko idazkian zehatz-mehatz azaldu behar da aktiboaren zer elementu dauden lotuta higiezinaren errentamenduari, eta horrez gainera araubide berezia aplikatzeko eskatzen den guztia betetzen denez egiaztatzeko behar diren datu garrantzitsu guztiak eman behar dira.

Zergari buruzko Foru Arauko 115. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren erakundeek aurreko datuak emateaz gainera araubidea aplikatzeko eskatzen diren langileen berri eman behar du, bakoitzaren egitekoak eta erakundearekiko harremanak zehaztuta.

Zergari buruzko Foru Arauko 115. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren erakundeek higiezinaren berri eman behar dute: eraikitako azalera (metro karratuak) eta eraikineko etxebizitzekin batera errentatzen diren garaje eta eranskinen zerrenda.

V. TITULUA ZERGAREN KUDEAKETA

I. KAPITULUA ESKAERAK IZAPIDETZEKO ETA ONARTZEKO PROZEDURA OROKORRA

45. artikulua. Eskerak izapidetzeko eta onartzeko prozedura orokorra.

1. Eskeraren beraren xedearekin zuzenean lotutako datuak azaldu behar dira.

2. Eskera berariaz ezarritako epealdian aurkeztu behar da; bestela, epealdirik ezarri ez bada, onartzen diren irizpideek ondorioak sortu behar dituzten eragiketak egin ondoko hiru hiletan zehar.

Zergadunak eskeraren atzera egin ahal izango du.

3. Zerga Administrazioak behar beste datu, txosten, aurrekari eta frogagiri eskatu ahal izango dizkio zergadunari, eta eskeraren aurkezten denetik edota beharrezko informazio gehigarria jasotzen denetik sei hilabete pasatu baino lehen ebatziko du.

Entzunaldiaren izapidea baino lehen zergadunak prozeduran zehar noiznahi aurkeztu ahal izango ditu nahi dituen alegazio, agiri eta frogari guztiak.

4. Prozedura bideratu ondoren, eta ebatzpen proposamena idatzi aurretik, espedientea zergadunaren eskura jarriko da, eta honek hamabost eguneko epealdia edukiko du nahi dituen alegazioak, agiriak eta frogagiriak aurkezteko.

Zergadunak azaldutako egitateak, alegazioak eta frogak bakarrik agertzen badira prozeduran eta horiek baino ez badira kontuan hartzen ebatzpenarako, ez dago entzunaldiaren izapidea egin beharrik.

5. Prozedura azkentzen duen ebatzpenaren arrazoiak azaldu behar dira.

Eskeraren xedea Zerga Administrazioak zergadunaren plan edo irizpide bat onartzea bada, ebatzpenaren hiru aukera daude:

- a) Hasieran zergadunak proposatutako plana edo irizpidea onartu.
- b) Zergadunak prozeduran proposatutakoa ez beste plan edo irizpide bat onartu.
- c) Zergadunak proposatutako plana edo irizpidea ezetsi.

6. Aurreko 3. idatz zatian aipatutako epealdian amaitutakoan zergadunaren eskeraren ezetsitzat jo behar da.

7. Artikulu honetan xedatutakoa oro har aplikatuko da. Hala ere, kontuan hartuko da araudi honetan gai bakoitzerako ezarritakoa.

II. KAPITULUA ERAKUNDEEN INDIZEA

46. artikulua. Erakundeen indizea.

Zergari buruzko Foru Arauko 119. artikuluan aipatzen den Erakundeen Indizea eratzeko Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautu dituen urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik aurkeztu beharreko errolda aitortpenetako datuak erabiliko dira.

Erakundeen Indizean alta edo baja egiteko edo zerbait aldatzeko aurreko foru dekretu horretan ezarritako prozedurak aplikatu behar dira.

47. artikulua. Erakundeen indizeko alta berritzea eta bazterreko oharra ezeztatzea.

Baldin eta, Zergari buruzko Foru Arauko 120. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, erakunde bati Erakundeen Indizean behin-behinean baja ematea erabakitzen bada eta horri buruzko bazterreko oharra egiten bada erregistro publiko egokian, Ogasuneko zuzendariak erabakiko du Indizean alta ematea eta bazterreko oharra ezeztatzea, erakunde interesdunak eskatu eta erakundeak zerga betebeharrak guztiak egunean dauzkala egiaztatu ondoren.

III. KAPITULUA AUTOLIKIDAZIOA AURKEZTEAN EGIN BEHAR DIREN HAUTAPENAK

48. artikulua. Hautapenak zuzentzea.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, eta r) letrari dagokionez, ordezkotako autolikidazioetan ezin dira aldatu aplikatutako kopuruak epealdiaren barruan aurkeztutako autolikidazioaren kuota likidoa murrizten badute.

2. Zergadunek noiznahi zuzendu ahal dituzte euren autolikidazioak zerga oinarria edo Zergaren kuotaren murrizketa eragiten duen hautapenen bat ezeztatzeko, baldin eta badakite horretarako ezarritako guztia ez dela bete eta Zerga Administrazioak alde zuzeneko errekerimendua egin ez badu.

49. artikulua. Autolikidazioa epez kanpo aurkeztea.

Zergaren autolikidazioa nork bere borondatez aurkezteko epealdian aurkezten ez duten zergadunek ezin izango dituzte egin Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren paragrafoan aipatzen diren hautapenak.

Gainera, Zerga Administrazioak errekerimendua egin ondoren ezin dituzte egin Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan aipatzen diren gainerako hautapenak.

IV. KAPITULUA KONTURAKO ORDAINKETAK

50. artikulua. Atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu behar zaizkien errentak.

1. Ondoko zerrendan agertzen diren zenbatekoei atxikipenak aplikatu behar zaizkie hartzaileak jasaten duen Sozietateen gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa:

- a) Denetariko erakundeen funts propioetako partaidetzak eta norberaren kapitala hirugarrenei lagata lortzen diren errentak, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 36. eta 37. artikuluetan ezarritako gainerako errentak.
- b) Jokoetan, lehiaketetan, zozketetan edota ausazko konbinazioetan parte hartuta lortzen diren sariak, ondasun, produktu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintzari, sustapenari edo salmentari lotuta egotea gorabehera.
- c) Beste sozietate batzuetan administrari edo aholkulari kargua hartzearen ondoriozko kontraprestazioak.
- d) Irudia ustiatzeko eskubidea lagata edo hura erabiltzeko baimena emanda lortzen diren errentak, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan xedatutakoaren arabera kapital higigarriaren etekinak badira.
- e) Hiri higiezinak errentatuta edo azpierreantatuta lortzen diren errentak, are ustiapen ekonomiko baten ondoriozko sarrerak izanik ere.
- f) Talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioak eta partaidetzak eskualdatuta edo ordainduta lortzen diren errentak.

2. Kontratu batean batera ezarrita badaude zerbitzugintzaren bat edo ondasun higiezinaren lagapena, batetik, eta bestetik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 37. artikuluan aipatzen diren ondasun eta eskubideen lagapena, atxikipena guztirako zenbatekoari aplikatu behar zaio.

Kontratu baten bidez batera errentatzen, azpierreantatzen edo lagatzen badira landa lurreko finka bat eta beste ondasun higigarriaren bat, ez da atxikipenik egingo, ondoko kasuan izan ezik: negozioa edo meategia errentatu edo lagaz gero.

3. Aurreko idatz zatietan aipatutako errentak gauzatan ordaintzen badira, hartzaileak jasaten duen Sozietateen gaineko Zergaren konturako sarrera egin behar da.

4. Atxikipenak eta konturako sarrerak Arabako Foru Aldundiari ordaindu behar zaizkio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudian horretarako ezarritako irizpideak aplikatuta.

51. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharraren salbuespenak.

Ondoko hauek jasotzeagatik ez dago ez atxikipenik ez konturako sarrerarik egin beharrik:

1. Espainiako Bankuak diru merkatuan esku hartzeko erregulazio tresna gisa jaulkitako baloreen etekinak eta Altxorraren letren etekinak.

Hala ere, bezeroekin Altxorraren letren gaineko eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten dituzten finantza erakundeek atxikipenak aplikatu behar dizkiete kontu horien titularrek lortzen dituzten etekinei.

2. Estatuak kreditu ofizialari egindako maileguen kontraprestazio gisa Altxorraren aldeko eskubideak diren korrituak.

3. Espainiako Bankuaren erregistro berezietan sartuta dauden eta egoitza Espainian duten kreditu erakundeetako eta finantza establezimenduetako sarrera eratzten duten korrituak eta mailegu komisioak.

Aurreko salbuespena ez zaie aplikatuko erakunde publiko edo pribatuek, nazionalek zein atzerrikoek, jaulki eta beraien balio zorroan sartzen diren obligazio, bono eta bestelako tituluen korrituei eta etekinei.

4. Estatuko Industria Partaidetzen Sozietateak kapitalaren gehiengoaren partaidetza duen sozietateekin egiten dituen mailegu, kreditu edo aurrerakin eragitek (aktiboek nahiz pasiboek) sortzen dituzten korrituak. Salbuespen hau ezin da hedatu zedula, obligazio, bono edo antzeko beste tituluen korrituetara.

5. Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 63. artikuluko 2. idatz zatiko b) letran aipatzen diren baloreak erosteko edo saltzeko eragiketei lotuta emandako kredituen ondorioz balore sozietateek jasotzen dituzten korrituak, eta inbertsio zerbitzuetarako enpresek halako enpresen eta inbertsio zerbitzuak egiten dituzten gainerako enpresen araubide juridikoari buruzko otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretuko 49. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren mailegu edo gordailu eragiketa aktiboen ondorioz jasotzen dituzten korrituak (dekretu horrek modu partzialean aldatu du azaroaren 4ko 1.309/2005 Errege Dekretuaren bidez onartutako Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudia).

Era berean, ez da atxikipenik egin behar balore agentziek eta sozietateek salgaien eperako aukeren eta aukeren merkatuetan aritzeko eratutako bermeen kontraprestazioz jasotzen dituzten korrituen gainean, bigarren mailako salgaien eperako merkatu ofizialak, aukeren merkatu ofizialak eta beste finantza tresna eratorri batzuk arautu dituen urriaren 15eko 1282/2010 Errege Dekretuko IV. eta V. kapituluetan aipatu den bezala.

6. Obligazioak akzio bihurtzeko primak.

7. Akzioen edo partaidetzen jaulkipen prima banatzearen ondoriozko errentak.

8. Egoitza Espainian daukan sozietate nagusi bati egoitza Europar Batasuneko beste estaturen batean daukaten eskumendeko sozietateek ematen dizkieten mozkinak, araudi honetako 52. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako atxikipenari dagokionez, baldin eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluko 1. idatz zatiko g) letran ezarritako betekizunak betetzen badira.

9. Hiri higiezinak errentatuta edo azpierrentatuta lortzen diren etekinak, ondoko kasu hauetan:

- a) Enpresak enplegatuei etxebizitzak alokatzen dizkienean.
- b) Errentariak errentatzaile bati urtean ordaindutako errenten zenbatekoa 900 euro baino gehiago ez denean.
- c) Ondokoak gertatzen direnean: errentatzailearen jarduera uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onartu ziren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifen lehen sekzioko 861. taldeko epigrafeetakoren batean sailkatuta egotea (edo hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierrentan emateko jarduerarako baimena ematen duen beste epigraferen batean) eta errentan edo azpierrentan emateko diren higiezinaren katastro balioari 861. talde horretako epigrafeetan ezarritako kuota zehazteko erregelak aplikatuta kuota zero ez izatea.

Horri dagokionez, errentatzaileak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen duen moduan frogatu behar dio errentariari baldintza hori betetzen duela.

- d) Etekinak Zergari buruzko Foru Arauko 18. artikuluko 1. idatz zatian aipatutako finantza errentamenduko kontratuen ondoriozkoak direnean, xedea hiriko ondasun higiezinak badira.

10. Espainiako edo Europako interes ekonomikoko elkartzeen eta beraien kideen artean eskatu daitezkeen etekinak, eta aldi baterako enpresa batasunen eta beraien kideen artean eskatu daitezkeenak.

11. Titulazio funtsetako sarrerak diren hipoteka, mailegu eta bestelako kreditu eskubideen partaidetzak.

12. Egoitza Espainian daukaten kreditu erakundeek eta finantza establezimenduek atzerrian daukaten establezimendu iraunkorrek ordaindutako kanpoko kontuen etekinak.

13. Espainiak sinatutako nazioarteko hitzarmen batean xedatutakoaren arabera Zergaren salbuespena duten erakundeei ordaindutako etekinak.

14. Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluko VI. kapituluan araututako zerga baterakuntzaren araubide berezian dagoen talde bateko sozietateek elkarri ordaintzen dizkioten dibidenduak, mozkin partaidetzak, korrituak eta gainerako etekinak.

15. Espainiako eta Europako interes ekonomikoko elkartzeek eta enpresen aldi baterako batasunek banatzen dituzten dibidenduak eta mozkin partaidetzak. Salbuespena: Zergaren arau orokorren arabera kargatzen direnak, hain zuzen ere elkartzeak edo batasunak Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluko III. kapituluko araubide berezian xedatutakoaren arabera tributatu duen zergaldietan sortu eta zerga oinarriaren egozketa jasan behar duten bazkideei dagozkienak.

16. Zergari buruzko Foru Arauko 12. artikuluan (edo Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurralde historikoetan, Nafarroako Foru Komunitatean eta araubide erkideko lurraldean

indarrean dauden Sozietateen gaineko Zergaren arautegietako manu baliokideetan) aipatzen diren erakunde salbuetsiek lortzen dituzten errentak.

Zuzenbidean frogatzat onartzen den edozein baliabideren bitartez frogatu ahal izango da erakundea salbuetsita dagoela. Zerga Administrazioak erakundea salbuetsita dagoela frogatzeko bitartekoak eta modua ezarri ahal izango ditu.

Idatz zati honetan aipatzen diren erakunde salbuetsiek jasotzen dituzten Estatuaren Zor Publikoaren tituluen ondoriozko etekinei atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu beharra ez edukitzeko prozedura zehaztu ahal izango da.

17. Zergari buruzko Foru Arauko 33. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren dibidenduak eta mozkin partaidetzak, eta aseguru orokorretako mutuek, gizarte aurreikuspeneko erakundeek, elkarrekiko bermerako sozietateek eta elkarteek banatzen dituztenak.

Idatz zati honetan xedatutakoa aplikatzeko, erakunde jasotzaileak atxikipenak egin beharra daukan erakundeari jakinarazi behar dio aurrean aipatutako artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen dituela. Jakinarazpenean jasotzailearen identifikazio datuak agertu behar dira eta berarekin batera aurrean aipatutako baldintzak betetzen direla frogatzen duten agiriak aurkeztu behar dira.

18. Zergadunek finantza aktiboei esker lortzen dituzten errentak, ondoko baldintza hauek betez gero:

- a) Kontuko idaztoharren bitartez ordezkatuta egotea.
- b) Espainiako bigarren mailako balore merkatu ofizial batean negoziatzea.

Hala ere, bezeroekin finantza aktiboen gaineko eragiketetan oinarritutako kontratuak egiten dituzten kreditu erakundeek eta gainerako finantza erakundeek atxikipenak aplikatu behar dizkiete kontu horien titularrek lortutako etekinei.

Idatz zati honetan aipatzen diren baloreen korrituak ordaintzeko erabiltzen diren finantza erakundeek eta haiek eskualdatzen, amortizatzen edo ordaintzen parte hartzen duten finantza erakundeek balore bakoitzaren titularrari egotzi beharreko etekina kalkulatu behar dute eta horren berri eman behar diete titularrari eta Zerga Administrazioari. Honi, gainera, aipatutako eragiketetan parte hartzen duten pertsonen datuak ere eman beharko dizkiete.

Zerga Administrazioak printzipala eta kupoitik bereizita negoziatzeko baimendutako Zor Publikoko baloreen banantze, eskualdaketa, berriz eratze, ordainketa eta amortizazioei dagozkien bitartekaritza eta informazio betebeharrak ezarriko ditu. Kasu horietan Kontuko Oharpenetako Zor Publikoaren Merkaturia kudeatzen duten erakundeek titular bakoitzari egotzi beharreko etekina kalkulatu behar dute eta horren berri eman behar diete titularrari eta Zerga Administrazioari. Honi, gainera, baloreekin egindako eragiketetan parte hartzen duten pertsonen datuak ere eman beharko dizkiete.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio idatz zati honetan araututako atxiki beharraren salbuespena gauzatzeko prozedura ezartzeko.

19. Aurreko artikuluko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen diren sariak, atxikipen oinarria 300,51 euro baino gehiago ez bada.

20. Zerga honen zergadunek Ekonomia Lankidetzako eta Garapeneko Erakundeko (ELGE) herrialdeetako administrazio publikoek jaulkitako zorraren eta herrialde horietan antolatutako merkatuetan negoziatutako finantza aktiboen bidez lortzen dituzten errentak.

Hala ere, bezeroekin aurreko paragrafoan zehaztutako finantza aktiboen gaineko eragiketetan oinarritutako kontratuak egiten dituzten kreditu erakundeek eta gainerako finantza erakundeek atxikipenak aplikatu behar dizkiete kontu horien titularrek lortzen dituzten etekinei.

Idatz zati honetan aipatzen diren baloreen korrituak ordaintzeko erabiltzen diren finantza erakundeek eta haiek eskualdatzen, amortizatzen edo ordaintzen parte hartzen duten finantza erakundeek balore bakoitzaren titularrari egotzi beharreko etekina kalkulatu behar dute eta horren berri eman behar diete titularrari eta Zerga Administrazioari. Honi, gainera, aipatutako eragiketetan parte hartzen duten pertsonen datuak ere eman beharko dizkiote.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio zenbaki honetan araututako atxiki beharraren salbuespena gauzatzeko prozedura ezartzeko.

21. Talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioak eta partaidetzak eskualdatuta edo ordainduta ondoko hauek lortzen dituzten errentak:

a) Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututako inbertsioko finantza funtsak eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateak, baldin eta beraien kudeaketa araudian edo estatutuetan ezarrita badago gutxienez ondarearen ehuneko 50 eduki behar dela inbertituta uztailearen 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onartutako Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiko 48. artikuluko 1. idatz zatiko c) eta d) paragrafoetan azaltzen diren talde inbertsioko hainbat erakunderen akzioetan eta partaidetzetan.

b) Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututako inbertsioko finantza funtsak eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateak, baldin eta beraien kudeaketa araudian edo estatutuetan ezarrita badago gutxienez ondarearen ehuneko 85 eduki behar dela inbertituta uztailearen 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onartutako Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiko 3. artikuluko 3. idatz zatiko lehen tartekian azaltzen den inbertsioko finantza funts batean. Inbertsio politika hau inbertsio funtsaren edo sozietatearen konpartimentu bati badagokio, idatz zati honetan ezarritako atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharraren salbuespena konpartimentuari egotzitako ondare zatiko inbertsioei soilik aplikatu ahal zaie.

Idatz zati honetan ezarritako atxiki beharraren salbuespena aplikatzeko ezinbestekoa da inbertsio erakundea a) eta b) letretan ezarritako inbertsio motetarako Balore Merkatuko

Nazio Batzordeak ezarritako kategoriakoa izatea. Erakundeak horren berri eman behar du bere liburuxka informatiboan.

22. [\(10\)](#) Aseguru-erakundeek pentsio-planak aseguratzearen ondorioz pentsio-funtsei ordaintzen dizkieten zenbatekoak.

Ez da atxikipen betebeharririk izango inbertsiorako pentsio-planen edo inbertsiorako pentsio-funtsen partizipazioak mobilizatzearen edo itzultzearen ondorioz irekitako pentsio-funtsengatik ordaindutako zenbatekoengatik, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege dekretuak onartutako Pentsio Planak eta Funtzak Arautzeko Legearen testu bateginean eta hori garatzeko arauetan xedatutakoaren arabera.

23. Hartzailleak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duen bitzita aseguruetak hornidurak inbertituta dauden aktiboen trukeagatik lortzen diren errentak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, aktiboak eskualdatzen edo ordaintzen direnean, aseguru erakundeek atxikipenak egitera behartuta dauden erakundeei jakinarazi behar diete aseguru kontratuaren arabera hartzailleak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duela eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 57. artikuluko 2. idatz zatiko h) letran ezarritako baldintzak betetzen direla. Atxikipenak aplikatu behar dituen erakundeak jakinarazpena gorde behar du, behar bezala sinatuta.

24. Konpentsazio Aseguruaren Partzuegoak bere Legezko Estatutuaren testu bategineko 24. artikuluko 1. idatz zatiko hirugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera aseguru erakundeak likidatuta eta horien konkurtso prozeduren ondorioz lortzen dituzten errentak (Legezko Estatutua urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

25. Plan baten bidez finantzaturako talde aseguruaren kontratu batean gauzatutako pentsio konpromisoen aldakuntzaren ondorioz, hura osorik ez betetzeagatik, alegia, enpresa hartzailleetan sortutako errentak, enpresek langileekin eta onuradunekin berenganatutako pentsio konpromisoak gauzatzeko araudiko 36. artikuluko 5. idatz zatiko bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera (araudi hori urriaren 15eko 1.588/1999 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

26. Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiko 79. artikuluan araututako funts eta sozietateetako partaidetzak edo akzioak ordainduta edo eskualdatuta lortzen diren errentak (araudi hori uztailaren 13ko 1.082/2012 Errege Dekretuak onartu zuen).

27. [\(10\)](#) Kontrapartida zentralerako erakundeek balio-mailegu eragiketen ondorioz eskubide ekonomikoengatik eskuratzen dituzten ordainketa eta ordainak, baldin eta eragiketa horiek gauzatu baldin badira betetzeko urriaren 2ko 878/2015 Errege Dekretuaren 82. artikuluko 2. atalean xedatutakoa. Dekretu hori honako hauei buruzkoa da: kontuko oharren bidez ordezkaturako balio negoziagarrien konpentsazioa, likidazioa eta erregistroa; balio-gordailuzain zentralen eta kontrapartida zentralerako erakundeen

araubide juridikoa, eta bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartutako balio-jaulkitzaileen gardentasun betekizunak.

Halaber, kontrapartida zentralean erakundeak ez daude behartuta atxikipena egitera aurreko paragrafoan aipatutako balio-mailegu eragiketen ondorioz ordaintzen dituzten eskubideengatik ordain eta ordainsariengatik.

Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez ditu aipatutako errentak salbuetsiko errenta horien onuradun den erakundeari edo pertsonari dagokion pertsona-zerga arautzen duen araudiaren arabera dagozkien atxikipenetik, eta, beraz, hala dagokionean, horren ordainketan bitartekari lana egiten duen erakunde parte-hartzaileak aplikatu beharko du, eta ulertuko da ez dela ordainketaren bitartekari lan hutsa egiten ari.

52. artikulua. Atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituzten subjektuak.

1. Ondoko pertsona hauek atxikipena edo konturako sarrerak egin beharko dituzte araudi honetako 50. artikuluko errentak ordaintzen edo abonatzen badituzte:

- a) Pertsona juridikoen eta gainerako erakundeek, are ondasunen eta jabeen erkidegoek eta errenta eratxikipenaren araubidean dauden erakundeek ere.
- b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak, jarduera ekonomikoren bat egin eta bertan errentarik ordainduz gero.
- c) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsona fisikoek, pertsona juridikoen eta gainerako erakundeek, baldin eta bertan establezimendu iraunkorraren bidez jarduten badute.

2. Pertsona edo erakunde batek ordainketa bitartekotza baino egiten ez badu, ez da pentsatuko errenta ordaintzen duela. Ordainketa bitartekaritza da kopuru bat hirugarren baten kontura eta aginduz ordaintzea; salbuespena: erakundea egoitza Espainian dutenen atzerriko baloreen gordailuzaina izatea edo halako baloreen errenten kobrantzaren kudeatzailea izatea. Erakunde gordailuzain horiek ordainketari dagokion atxikipena egin behar dute errentak aurretik Espainian atxikipenik jasan ez badu.

3. Sarien kasuan, ordaintzen dituen pertsonak edo erakundeak egin behar du atxikipena edo konturako sarrera.

4. Finantza aktiboen gaineko eragiketetan ondokoek dute atxiki beharra:

- a) Finantza aktiboen amortizazioan edo itzulketan etekinak lortuz gero, pertsona edo erakunde jaulkitzaileak. Hala ere, eragiketa horiek gauzatzea finantza erakunde baten esku uzten bada, eragiketaren ardura daukan finantza erakundeak edukiko du atxikipena aplikatu beharra.

Finantza aktibo gisa jaulki ondoren bihurtutako igorpen tresnei dagokienez, mugaeguna pasatutakoan atxikipena aplikatu behar du fede emaile publikoak edo kobrantzako aurkezpenean parte hartzen duen finantza erakundeak.

- b) Finantza aktiboen eskualdaketa lortutako etekinetan (aurreko a) letran aipatutako igorpen tresnak barnean sartuta), eskualdaketa hori finantza erakunde baten edo batzuen bitartez bideratzen bada, eskualdatzailearen kontura jarduten duen bankua, kutxa edo finantza erakundea.

Letra honetan zehaztutakoaren ondorioetarako banketxea, aurrezki kutxa edota finantza erakundea eskualdatzailearen izenean ari dela pentsatuko da finantza aktiboak saltzeko agindua ematen badio.

- c) Aurreko idatz zatietan arautzen ez diren kasuetan, eragiketan nahitaez parte hartu behar duen fede emaile publikoak.

5. Estatuaren Zorren baloreak eskualdatuz gero, eskualdatzean parte hartzen duen Idazpenetako Zor Publikoaren Merkatuko erakunde kudeatzaileak egin behar du atxikipena.

6. Talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo ordaintzen badira, ondoko pertsona edo erakunde hauek egin behar dute atxikipena edo konturako sarrera:

1. Inbertsio funts bateko partaidetza ordainduz gero, sozietate kudeatzaileak. Salbuespena: partaidetza partaideen kontura ari den erakunde merkaturatzaile baten izenean erregistratuta badago, erakunde horrek egin behar du atxikipena edo konturako sarrera.
2. Kapital aldakorreko inbertsio sozietate batek, ez burtsan ez baloreen beste merkatu edo negoziazio sistema antolaturen batean kotizatzen ez duten akzioak dituenak, akzioak berriro erosten baditu, berdin dio akzio horiek zergadunak zuzenean edo merkaturatzaile baten bitartez erositakoak izan, sozietateak berak egin behar du atxikipena edo konturako sarrera. Salbuespena: sozietate kudeatzailearen batek esku hartzen badu, berak egin behar du.
3. Talde inbertsioko erakundeak egoitza atzerrian badauka, erakunde merkaturatzaileek edo haien akzio nahiz partaidetzak merkaturatzeko ahalmena duten bitartekariak eta, sorospidez, itzulketa egiten dutenean, balizko harpidedunen artean baloreak jarri edo banatzeko ardura duten erakundeak.
4. Zerbitzuen eskaintza libreko erregimenpean aritzen diren erakunde kudeatzaileen kasuan, hainbat zerga xedapenen aldaketari buruzko maiatzaren 10eko 7/2004 Foru Arauak seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik aukeratzen den ordezkariak.
5. Aurreko idatz zatiei jarraikiz, atxikitzea egoki ez den kasuetan, eskualdaketa egin edota ordainketa jasotzen duen bazkide edo partaideak konturako ordainketa egin behar du. Konturako ordainketa hori araudi honetako 54. artikuluko 4. idatz zatiko lehenengo paragrafoan, 55. artikuluko 3. idatz zatian eta 56. artikuluko d) letran ezarritako arauarekin bat etorritik egin behar da.

7. (7) Zerbitzuak libreki emateko araubidearen pean jarduten diren aseguru entitateek, Araban gauzatzen dituzten eragiketetan, atxikipena edo konturako ordainketa egin beharko dute, egoitza Europako Eremu Ekonomikoko beste estatu kide batean badute.

8. Atxikipenak egin behar dituzten subjektuek Arabako Foru Aldundiari ordaindu behar dizkiote kopuruak; atxiki beharra ez betetzeak ez ditu salbuetsiko ordaindu beharretik.

Etekina Arabako Foru Aldundiak ordaintzen badu, atxikipena eta horren zenbatekoaren sarrera zuzenean egin behar dira.

53. artikulua. Finantza aktiboak kalifikazioa eta horiek eskualdatzeko, ordaintzeko eta amortizatzeko zerga baldintzak.

1. Finantza aktiboek etekin implizitua dutela ulertuko da haiek jaulkitzean, lehenengoz kokatzean edo endosatzean ordaindutako zenbatekoaren eta mugaegunean itzuli beharrekoaren arteko diferentziaren bidez sortzen badute etekina, besteren baliabideak erakartzeko erabiltzen diren balore higigarrien bitartez osorik edo zati batean eta implizituki finkatutako etekina duten eragiketetan.

Jaulkipen, amortizazio edo itzulketa primak etekin implizituetan sartuko dira.

Ez dira etekin implizituetan sartuko kokapen primak edo hobariak, jaulkipen prezioaren gainekoak, baldin eta merkatuko praktiken barruan kobratzen badira eta xedapen honetan aipatutako finantza aktiboak jaulkitzen eta zirkulazioan jartzen dituen finantza bitartekari edo kokatzailearentzako diru sarrerak badira oso-osorik.

Etekin implizitua duen finantza aktibotzat joko da igorpena egiteko edozein tresna, bai eta merkataritzako eragiketetan endosua edo eskualdaketa egiten den uneaz gero sorrarazitakoak ere, salbu eta endosu edo lagapena hornitzaileentzako kreditu baten ordain gisa egiten denean.

2. Etekin esplizitua duten finantza aktibotzat hartuko dira aldian-aldian korrituak sortzen dituztenak, bai eta hirugarrenei norberaren kapitalak lagatzearen truke ituntzen den beste edozein ordain ere, baldin eta ez bada etekin implizituen kontzeptuan egokitzen, aurreko paragrafoan azaldutakoaren arabera.

3. Etekin mistoa duten finantza aktiboak etekin esplizitua duten finantza aktiboen araubideari lotuko zaizkio urtean sortzen duten benetako etekin esplizitua jaulkipenean indarrean egon den erreferentzia tasaren bestekoa edo gehiago denean, nahiz eta jaulkipen, amortizazio edo itzulketaren baldintzetan modu implizituan beste etekin batzuk ere finkatu. Erreferentziako tasa hori, egutegiko hiruhileko bakoitzean, aurreko hiruhilekoan Estatuaren hiru urterako bonuen azken enkantean atera den batez besteko prezio haztatu eta biribilduari dagokion tasa efektiboaren ehuneko 80 izango da, finantza aktiboek gehienez lau urteko epealdia badute; finantza aktiboek lau urtetik gorako eta gehienez zazpi urteko epealdia badute, berriz, Estatuaren bost urterako bonuen enkantearen emaitza hartuko da kontuan, eta finantza aktiboek epealdi luzeagoa badute, Estatuaren hamar, hamabost edo hogeita hamar urterako obligazioen enkantearen

emaitza. Epealdiren baterako erreferentzia tasa zehaztu ezin bada, prestatutako jaulkipenaren epealditik hurbilen dagoena aplikatuko da.

Etekin aldakor edo flotatzailea duten finantza aktiboen jaulkipenak direla eta idatz zati honetan xedatutakoari dagokionez, eragiketaren korritu efektibo gisa barne etekinaren tasa hartuko da, eta etekin esplizitu eta kalkulatu duten etekinak bakarrik hartuko dira kontuan, halakorik bada, sorrarazitako etekinen behin betiko zenbatekoa aldian-aldian finkatzeko erabiltzen den parametroaren hasierako balorazioaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, etekin mistoko zor publikoa bada eta prezioen indize bat hartzen bada erreferentziatzen haren kupoiak eta amortizazioaren zenbatekoa kalkulatzeko, lehenengo paragrafoko ehuneko 100eko 40 izango da.

4. Eskualdatzean, amortizatzean edo ordaintzean atxikipena aplikatu behar zaien etekin esplizituarekiko finantza aktiboen eta etekin implizituarekiko finantza aktiboen edo tituluen ordainketak besterentzeko edo lortzeko, atxikitzen behartuta dauden finantza erakundeak eta fede emaileen alde aurreko eskualdaketa frogatu behar da, bai eta eragiketa egin zen prezioa ere.

Igorpen tresna bat zirkulazioan jarri eta gero finantza aktibo bihurtzen bada, lehenengo endosua edo lagapena fede emaile publiko edo finantza erakunde baten bitartez egin behar da, endosatzailea edo eskuratzzailea bera finantza erakundea ez bada. Fede emaileak edo finantza erakundeak finantza aktiboaren izaera adierazi beharko dute dokumentuan, lehen eskuratzzailearen edo edukitzailearen identifikazioarekin.

5. Aurreko idatz zatian xedatutakoa aplikatzeko, pertsona edo erakunde jaulkitzaileak, horren kontura diharduen finantza erakundeak, fede emaile publikoak edo eskuratzzailearen nahiz gordailugilearen kontura jardun edo esku hartzen duen finantza erakundeak ziurtagiria eman behar du ondoko datu hauekin:

- a) Eragiketaren data eta aktiboaren identifikazioa.
- b) Eskuratzzailearen izena.
- c) Eskuratzzaile edo gordailugilearen identifikazio fiskaleko zenbakia.
- d) Eskuraketa prezioa.

Ziurtagiri horren hiru ale beharko dira: bi eskuratzzaileari emango zaizkio eta bestea ziurtatzen duen pertsonak edo erakundeak edukiko du.

6. Finantza erakundeak edo fede emaile publikoek aktibo horien eskualdatzean jarduteari utzi beharko diote, artikulu honetan xedatutakoaren arabera, eskualdatzaileak ez badu haien eskuratzzailea justifikatzen.

7. 4. idatz zatian zehazten diren finantza aktiboak jaulkitzen dituzten pertsonak edo erakundeak ezin dituzte finantza aktiboak ordaindu, baldin eta aurretik edukitzaileak ez badu frogatzen eskuratu dituela ziurtagiri egokiaren bidez (ziurtagiria aurreko 5. idatz zatian zehaztutakoarekin bat etorriz egin behar da).

Jaulkitzaileak edo eragiketaz arduratzen den finantza erakundeak aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera ez badauka titulu edo aktiboaren edukitzaileari ordainketarik egin beharrik, horren zenbatekoa gordailutu beharko dute eta agintari judizialaren esku jarri.

Berreroste, erreskate, ezeztatze edo amortizatze aurreratuak eskatuko dute finantza erakundearen edo fede emaile publikoaren bitartekaritza; aktiboa jaulki duen erakunde edo pertsona eskuratzailerik huts izango da, titulua berriro zirkulazioan jartzen badu.

8. Tituluaren edukitzaileak tituluaren eskuraketaren ziurtagiria galtzen badu, kopia eskatu ahal izango dio ziurtagiria eman zuen pertsonari edo erakundeari.

Pertsona edo erakunde horrek agiria kopia dela zehaztuko du bertan, eta zein egunetan eman duen azalduko du.

9. Kosturik gabeko eskualdaketetan, kostua behar bezala frogatuz gero, eskuratzailerik eskualdatzailearen eskuraketa balioan subrogatuzat joko da.

54. artikulua. Atxiki eta sartu beharreko kopurua kalkulatzeko oinarria.

1. Oro har, egin beharreko atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria eskatu daitekeen edo ordaindutako kontraprestazio osoa da.

2. Finantza aktiboen amortizazioan, ordainketan edo eskualdaketan, egin beharreko atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria amortizazio, ordainketa edo eskualdaketa balioaren eta aktibo horien eskuraketa edo harpidetze balioaren arteko diferentzia positiboa izango da. Eskuraketa balioaren eskuraketaren ziurtagirian ageri dena hartuko da. Horri dagokionez ez dira kenduko eragiketaren gastu gehigarriak.

Eskualdatzaileari dagokion atxikipena gorabehera, erakunde batek berak jaulkitako finantza aktibo bat eskuratzen badu, titulu horretatik aurrerantzean edozein modutan (amortizazioa ez beste guztiak) lortzen dituen etekinei aplikatu behar zaie atxikipena eta horren arabera egin behar da sarrera.

3. Atxikipena egin beharraren sorrera araudi honetako 50. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran ezarritakoa bada, atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria sariaren zenbatekoa da.

4. Atxikipena egin beharraren sorrera araudi honetako 50. artikuluko 1. idatz zatiko f) letran ezarritakoa bada, atxikipenaren oinarria eskualdaketako edo ordainketako balioaren eta akzio edo partaidetzen eskuraketa balioaren arteko diferentzia da. Hori dela eta, zergadunak eskualdatu edo ordaindutako baloreak lehenengo eskuratu zituenak direla pentsatuko da.

Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututako inbertsio funtsetako partaidetzak ordaintzen badira eta lege horretako 40. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoaren arabera partaide erregistro bat baino gehiago badago, edo egoitza atzerrian daukan talde inbertsioko erakunde baten akzioak edo partaidetzak (Espainian merkaturatu, kokatu edo banatutakoak) eskualdatu edo ordaintzen badira,

aurreko paragrafoan aipatutako antzinasunaren erregela ordainketa edo eskualdaketa egiten duen erakunde kudeatzaileak edo merkaturatzaileak aplikatuko du bere partaideen edo akziodunen erregistroan dauden baloreei dagokienez.

5. Konturako sarrera egin beharraren sorrera araudi honetako 50. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoa bada, sartu beharreko kopurua kalkulatzeko oinarria ondasunaren merkatuko balioa izango da.

Hori dela eta hauxe hartuko da merkatuko balioztat: ordaintzailearen eskuraketa balioa edo kostua ehuneko 20 gehituta.

6. Eskatu daitekeen edo ordaindutako kontraprestazio osoa frogatzerik ez badago, Zerga Administrazioak hauxe hartu ahal izango du: atxikipen egokia kenduta benetan jasotakoa ematen duen kopurua.

7. Zergari buruzko Foru Arauko 45. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoa aplikatuta ageria jartzen diren errentei aplikatu beharreko atxikipenaren oinarria merkatuko balio arruntaren eta hitzartutako balioaren arteko diferentzia da.

55. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egin beharra sortzea.

1. Oro har, atxikipena eta konturako sarrera egin beharra diruzko zein gauzako errentak, atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar zaienak (hurrenez hurren), galdagarria direnean sortzen da, edo ordaintzen edo ematen diren unean, lehenago gertatzen bada.

Korrituak eskrituran edo kontratuan haiek likidatu edo kobratzeko ezarritako mugaeguna iristen denean eska daitezke, edo beste moduren batean haiek kontuan aitortzen direnean, nahiz eta hartzaileak kobratzeko eskatu ez edo etekinak eragiketaren printzipalarekin metatu, eta dibidenduak eska daitezke haiek banatzeko erabakian ezarritako eguna iristen denean, edo erabaki hori hartu eta hurrengo egunetik aurrera, egunik ezartzen ez bada.

2. Finantza aktiboak eskualdatuta, amortizatuta edo ordainduta sortzen diren etekinei atxikipena aplikatu beharra eragiketa gauzatzen denean sortzen da.

3. Talde inbertsioko erakundearen kapitalaren edo ondarearen akzioak edo partaidetzak eskualdatuta edo ordainduta lortzen diren errentei atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharra eragiketa gauzatzen denean sortzen da, hitzartutako kobrantza baldintzak gorabehera.

56. artikulua. (3) Atxikipenen eta konturako diru sarreraren ehunekoa.

Atxikipenen edo konturako diru sarreraren ehunekoa hauxe izango da:

a) Oro har, ehuneko 19. (1)

b) Irudia ustiatzeko eskubidea lagata edo baimena emanda lortzen diren errentei dagokienez, ehuneko 24.

- c) Hiriko ondasun higiezin errentamendu eta azpierrentamenduaren kasuan, ehuneko 19. [\(1\)](#)
- d) Talde inbertsioko erakundeen akzioak eta partaidetzak eskualdatuta edo ordainduta lortzen diren ondare irabazien kasuan, ehuneko 19. [\(1\)](#)
- e) Loteria eta apustuetako sariei ehuneko 20 aplikatuko zaie, baldin eta zenbatekoagatik zenbait loteria eta apusturen gaineko karga berezia (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko hemezortzigarren xedapen gehigarrian araututakoa) jasaten badute eta karga horretatik salbuetsita ez badaude. Horrelakoetan, kargapean eta salbuetsi gabe dagoen sariaren zenbatekoari aplikatuko zaio atxikipena, xedapen gehigarri horretan ezarritakoarekin bat etorritik.

57. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.

Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa zehazteko aurreko artikuluan ezarritako ehunekoa aplikatuko zaio kalkulu oinarriari.

58. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egin behar duenaren betebeharrak.

1. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar dituzten subjektuek aurreko hiruhileko naturaleko atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoen aitorpena aurkeztu behar diote Zerga Administrazioako organo eskudunari apirilako, uztaileko, urriko eta urtarrileko lehenengo hogeita bost egun naturaletan eta haien kopurua Arabako Foru Aldundiari sartu behar diote.

Hala ere, atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituenak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia onartu duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuko 71. artikuluko 3. idatz zatiko 1. eta 2. zenbakietan aipatzen direnetakoa bada, aurreko paragrafoan aipatzen diren aitorpena eta sarrera hil bakoitzeko lehen hogeita bost egunetan egin behar ditu aurreko hilean atxikitako kopuruak eta kontura sartutako kopuruak kontuan hartuta. Salbuespen gisa, uztaileko aitorpena eta sarrera abuztuan eta iraileko lehen hamar egun naturaletan egin daitezke.

Atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituztenek aitorpen negatiboa aurkeztuko dute kasu hauetan: atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharreko errentak ordaindu arren, horien zenbatekoa dela eta ez atxikipenik ez konturako sarrerarik egin ez badute; aitorpeneko aldi atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharreko errentarik ordaindu ez badute.

2. Atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituztenek aurreko urtean aplikatutako atxikipenen eta konturako sarreraren laburpena aurkeztu behar dute urteko azken aitorpenerako ezarritako epealdi berean.

Aitorpena ordenagailuz modu telematikoan edo zuzenean irakur daitekeen euskarrian aurkezten bada, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak foru agindu baten bidez ezartzen duen epean aurkeztuko da.

Laburpen horretan identifikazio datuez gainera eskatu daiteke jasotzaileen izenen zerrenda ere aurkezteko ondoko datu hauekin:

- a) Erakundearen izena.
- b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.
- c) Lortutako errenta, kontzeptuen identifikazioa, deskripzioa eta izaera, eta errenta zer ekitalditan sortu den.
- d) Egindako atxikipena edo konturako sarrera.
- e) Partaidearen, bazkidearen edo onuradunaren zerga egoitza.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak horiek eurak bete beharko dituzte Espainian egoitza edo ordezkariak duten erakundeek, atxikipena aplikatu beharreko errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo baloreen errenten kobrantza kudeatzen badute edo haien gordailuzainak badira.

3. Atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu behar dituztenek haiei buruzko ziurtagiria eman behar diete zergadunei, hain zuzen ere egindako atxikipenak edo konturako sarrerak eta aurreko idatz zatian aipatutako urteko laburpenean agertu beharreko gainerako datuak frogatzen dituen ziurtagiria.

Ziurtagiri hori zergadunaren eskura utzi behar da Zergaren aitortzea aurkezteko epealdia hasi baino lehen.

Egoitza edo ordezkariak Espainian daukaten erakundeek aurreko paragrafoetan araututako betebeharrak edukiko dituzte kasu hauetan: atxikipena aplikatu beharreko errentak besteren kontura ordaintzen badituzte; baloreen errenten gordailuzainak badira edo errenta horien ordainketa kudeatzen badute.

4. Ordaintzaileek errentak ordaintzean zergadunei jakinarazi behar diete zenbatekoa den aplikatutako atxikipena edo konturako sarrera, eta ehunekoa zehaztu behar diete.

5. Artikulu honetan aipatzen diren aitortzeak nola egin (eredua, modua eta lekua) Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarriko du errenta mota bakoitzerako. Horrez gainera diputatuak aitortzean aurreko 2. idatz zatian zehaztutako datuetatik zein agertu behar diren zehaztu ahal izango du, eta atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar dituenak aitortzeko datu guzti-guztiak adierazi behar ditu.

6. Araudi honetako 52. artikuluko 6. idatz zatiko 4. zenbakian aipatzen diren aitortzeak eta konturako sarreraren aitortzea nola egin (modua, tokia eta epealdia) Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarriko du.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Arau aipamenak.

Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onartu duen abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuaz Arabako Lurralde Historikoko zerga arautegian egiten diren aipamen guztiak araudi honetako xedapenei dagozkiela pentsatu behar da.

Bigarrena. Abenduaren 28ko 80/2005 Foru Dekretuaren aldaketa; horren bidez ondoko hauei aplikatu beharreko prozedura onartzen da: idatzitako zerga kontsultak, zergen aurreko proposamenak eta itzurpenaren aurkako klausulak.

Abenduaren 28ko 80/2005 Foru Dekretuari xedapen gehigarria erantsi zaio (dekretu horren bidez ondoko hauei aplikatu beharreko prozedura onartzen da: idatzitako zerga kontsultak, zergen aurreko proposamenak eta itzurpenaren aurkako klausulak); hona xedapen gehigarria:

“Xedapen gehigarria. Aurretzako tributazio proposamen kualifikatuak.

1. Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren kasuetan Zerga Administrazioak aurretzako tributazio proposamen kualifikatua izapidetuko du xedapen gehigarri honetan ezarritako arauekin bat etorriz.

2. Aurretzako tributazio proposamen kualifikatua aurkezteko legitimatuta daude Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko hirugarren xedapen gehigarriko 1. idatz zatian aipatzen diren eragiketak egiten dituzten zergadunak.

Zerga baterakuntzaren araubide berezian dauden Sozietateen gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, erakunde nagusia dago legitimatuta aurretzako tributazio proposamen kualifikatua aurkezteko.

Idatz zati honetan ezarritakoa dela eta foru dekretu honetako 8. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko da.

3. Aurretzako tributazio proposamen kualifikatua epealdi honetan aurkeztu behar da: ondorioak sortu behar dituen zergaldia amaitu ondo hiru hiletan zehar.

Hala ere, Zergari buruzko Foru Arauko 53. artikuluko 5. idatz zatian aipatzen den kasuan aurretzako tributazio proposamen kualifikatua aurkezteko epealdia luzeagoa izango da: ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba bereziaren zuzkidura egiteko aplikatu den kontabilitate emaitza positiboa gertatu den ekitaldiko kontuak onartzeko ezarritako epealdia amaitu arte luzatuko da.

4. Aurretzako tributazio proposamen kualifikatuaren idazkian Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko hirugarren xedapen gehigarrian kasu bakoitzerako eskatzen diren datuak azaldu behar dira eta berarekin batera xedapen berean ezarritako agiriak aurkeztu behar dira. Horiez gainera behar den kasuetan foru dekretu honetako 9. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren datuak ere zehaztu behar dira.

5. Xedapen gehigarri honetako 2., 3. eta 4. idatz zatietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten aurretzako tributazio proposamen kualifikatuak beste izapiderik egin gabe artxibatuko dira.

6. Aurretzako tributazio proposamen kualifikatuen izapideetan foru dekretu honetako 10. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko dira.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak txostena egingo du Ogasuneko zuzendariarentzat. Txosten horretan aurretzako tributazio proposamen kualifikatua ebazteko kontuan hartu beharreko egitateak eta Zuzenbideko elementuak aztertuko dira; txostena ez da izango ebazpen proposamena.

7. Ogasuneko zuzendariak zergadunak aurkeztutako aurretzako tributazio proposamen kualifikatua onartzea edo ezeztatzea ebatziko du, eta ebazpenean horretarako arrazoiak azalduko ditu.

Aurretzako tributazio proposamen kualifikatua aurkezten denetik hiru hilabete pasatu baino lehen Ogasuneko zuzendariak berariazko ebazpenik eman ezean, proposamena ezetsizat jo behar da.

8. Zergadunak ezin du aplikatu bere autolikidazioan aurretzako tributazio proposamen kualifikatuaren onarpenaren bidez baimendu beharreko manurik proposamenaren onarpenaren jakinarazpena jaso ezean.

9. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan eta Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoa gorabehera, Zergaren autolikidazioa aurkezteko epealdiaren barruan ez bada ebazten zergadunak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 53. artikuluko 5. idatz zatian ezarritako ondorioetarako aurkeztutako aurretzako tributazio proposamen kualifikatua, zergadunak hilabeteko epealdia edukiko du Ogasuneko zuzendariak proposamena onartzeko ematen duen ebazpena jakinarazten zaionetik Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazio osagarria aurkezteko emaitzaren aplikazioan zuzenketa aplikatzea hautatzeko (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 53. artikulua). Hori eginez gero, hautapena Zergaren aitortzea nork bere borondatez aurkezteko epealdiaren barruan egintzat joko da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan ezarritako ondorioetarako.”

Hirugarrena. Administrazioa aurretiaz lotesteko prozedurak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 53. artikuluko 5. idatz zatian eta 61. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako kasuetan Administrazioa aurretiaz lotesteko prozedura izapidetzeko abenduaren 28ko 80/2005 Foru Dekretuko xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuko da (dekretu horren bidez ondoko hauei aplikatu beharreko prozedura onartzen da: idatzitako zerga-kontsultak, zergen aurreko proposamenak eta itzurpenaren aurkako klausulak).

2. Zergari buruzko Foru Arauko 53. artikuluko 5. idatz zatian ezarritako kasuetan, Administrazioa aurretiaz lotesteko prozedura hasteko eskaeran ondokoak azaldu behar dira:

- a) Ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezirako xedatutako mozkinak sortu den zergaldiko emaitza aplikatzeko proposamena.
- b) Mozkinak sortu den zergaldiko zerga oinarriaren zenbatekoa.
- c) Erakundearen zerga ondorioetarako ondare garbiaren xehetasunak.
- d) Aurreko lau ekitaldietako ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezia: xehetasunak eta mugimenduak.
- e) Ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezirako zuzkidura gauzatu nahi den erakundeetako partaidetzen xehetasunak.
- f) Partaidetza hartu den erakundeak burutuko dituen enpresa proiektuetatik jarduera, produktu edo merkatu berrien garapena, lehendik daudenak handitzea edo finkatzea edo lanpostu egonkorak sortzea eragingo dutenak azaltzen dituen memoria.
- g) Inbertsioek partaidetutako erakundearen zerga ondorioetarako ondare garbiaren gehikuntza nabarmena dakartelako justifikazioa.
- h) Partaidetutako erakundeak egin beharreko inbertsioen tamaina, berritasuna edo arriskua dela eta kapitalen merkatuetan sartzeko zailtasunak dauzkalako justifikazioa.
- i) Zergadunaren eta partaidetutako erakundearen arteko harremanak antolatzen eta proiektuetan hartu beharreko arriskuak azaltzen dituzten kontratuko elementuen xehetasunak.
- j) Partaidetutako erakundeak Zergari buruzko Foru Arauko 13. artikuluko 3. idatz zatiko a) eta c) letretan ezarritako baldintzak betetzen dituelako justifikazioa.
- k) Eskuratzailerak Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoaren arabera lotuta ez dagoen pertsona ez erakundea ez delako justifikazioa.
- l) Ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba bereziaren saldoa aplikatuko den partaidetzak eskuratzeko egutegia eta epealdiak.
- m) Inbertsioaren eragin ekonomikoa eskuraketaren ondoko bost ekitaldietan; ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko proiektuak sortuko dituen zerga ondorioak zehaztu behar dira.

3. Zergari buruzko Foru Arauko 61. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako kasuetan, Administrazioa aurretiaz lotesteko prozedura hasteko eskaeran ondokoak azaldu behar dira:

- a) Erakundearen aktibo finkoko elementuetan egindako inbertsioetatik hobekuntzat hartu daitezkeen justifikazioa.

- b) Zergari buruzko Foru Arauko 61. artikuluko 1. eta 3. idatz zatietan ezarritako baldintzak betetzen direlako justifikazioa.
- c) Txosten teknikoa, inbertsioen garrantzia (kopurua edo izaera) dela eta hobekuntza aplikatu den aktiboan eragin duten aldaketa egiturazko eta funtzionalari esker hura beste xede batzuetarako erabil daitekeela frogatzen duena.
- d) Aktiboaren xedea aldatzeko behar diren Administrazioaren baimenak.
- e) Inbertsioak gauzatzeko epealdia eta egutegia, eta noiz egongo den aktiboa xede bererako erabiltzeko prest.

Laugarrena. Higiezineta talde inbertsioko erakundeen araubidea.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 56. artikuluko 4. idatz zatian ezarritako karga tasaren onura edukitzeko, higiezineta inbertsio sozietateek eta funtsak euren inbertsioen ehuneko 50 gutxienez etxebizitzetan eta ikasleen eta adinekoen egoitzetan egin behar dute. Bada, ehuneko hori konputatzean Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiko 86. artikuluko 1. idatz zatiko a) eta b) letretan adierazitako inbertsioak hartuko dira kontuan (araudi hori uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onartu du). Horrez gainera, 86. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran ezarritako kasuetan erregela hauek bete behar dira:

- a) Eraikitzen ari diren ondasun higiezinak erregistroko entitatea lortzea Jabetza Erregistroan inskribatuta.
- b) Ikasleentzako eta zaharrentzako egoitzak izatea.

2. Ikasleen egoitzak dira berariaz ikasleen bizileku izateko diseinatu edo egokitutako higiezinak, modu ofizialean halakotzat onartuz gero.

Halaber, adinekoen egoitzak dira berariaz adinekoen bizileku izateko diseinatu edo egokitutako higiezinak, horretarako baimena edukiz gero.

3. Xedapen gehigarri honetan aipatzen den inbertsio koefizientea Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeko (azaroaren 4ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onartua) 90. artikuluan ondasun higiezin inbertsio ehunekoa kalkulatzeko ezarritako modu berean zenbatuko da.

4. Zergari buruzko Foru Arauko 56. artikuluko 4. idatz zatian ezarritako karga tasa higiezin inbertsioko funts eta sozietate sortu berri guztiei aplikatuko zaie behin-behinean, baldin eta bi urteko epealdian arau horretako 78. artikuluko 2. idatz zatian eskatutako inbertsio ehunekoa lortzen badu (epealdia Balio Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroan inskribatzen denetik aurrera zenbatuko da). Baldintza hori betetzen ez bada, pasatutako ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergaren tributazioa jasanaraziko da indarrean dagoen tasa orokorra eta horri berandutze korrituak aplikatuta.

5. Konpartimentukako higiezin inbertsiorako sozietate edo funtsen kasuan, xedapen gehigarri honetan ezarritakoa konpartimentu guztiek bete behar dituzte.

Bosgarrena. Balore jakin batzuk dituzten erakundeen araubidearen aplikazioa.

1. Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeko ezinbestekoa da aurretik zergadunak eskaera aurkeztea xedapen gehigarri honetan ezarri den bezala.

2. Eskaera Zerga Administrazioari aurkeztu behar zaio eta beraren aurrean izapidetu behar da araudi honetako 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorraren arabera, ondoko idatz zatietan arautu denarekin bat etorritz.

3. Araubide hori aplikatzeko eskaeraren idazkiarekin batera ondoko agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a) Erakundearen eraketa eskrituraren kopia.
- b) Estatutuen kopia eta, beharrezkoa izanez gero, estatutuak aldatzeko proiektua.
- c) Enpresa nazioartera zabaltzeko proiektuaren justifikazio memoria; proiektuak enpresa atzerrian zabaltzea sustatu behar du edo jarduera edo merkatu berriei ekitea bultzatu.
- d) Erakundeak dauzkan partaidetzen zerrenda; bakoitzaren ehunekoa zehaztu behar da, kotizatzen duenez argitu eta kontabilitateko balioa eman. Zerrendan aurreko c) letran aipatutako proiektuan erakundeak eskuratzeko asmoa daukan partaidetzak ere agertu behar dira.

4. Eskaera Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubideak ondorioak sortu behar dituen lehen zergaldia hasi baino lehen aurkeztu behar da. 2014ko ekitaldiko eskaera araudi hau ALHAOn argitaratu ondoko 3 hiletan zehar aurkeztu behar da.

5. Tributazio araubide hau aplikatzeko baimena Ogasuneko zuzendariak eman behar du.

6. Erakunde batek uko egin nahi badio Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubideari Zerga Administrazioari jakinarazi behar dio ukoak ondorioak sortu behar dituen zergaldiko lehen hiru hiletan.

Seigarrena. Balore jakin batzuk dituzten erakundeen araubidea ezeztatzea.

1. Zerga Administrazioak Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeko baimena ezeztatu dezake kasu honetan: frogatuta geratzen bada funtsean ez dela bete enpresa nazioartera zabaltzeko proiektua, zergadunak enpresa atzerrian zabaltzeko edo jarduera edo merkatu berriei ekiteko abiarazitakoa.

2. Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeko baimena eman zaion zergapeko baten inguruko zergen arloko kudeaketa edo ikuskapen prozedura batean agerian jartzen badira baimena emateko ezarritako baldintzak (aurreko idatz zatian ezarritakoak) ez direla bete pentsarazten duten arrazoizko zantzuak, txostena egingo da baldintzak bete ez direla frogatzen duten elementuak

azaltzeko eta araubide bereziaren balizko ezeztapena noiz hasiko den ondorioak sortzen ezartzeko.

Ogasuneko zuzendariak administrazio espedienteaz aztertuko du eta, bidezkoa izanez gero, baimena ezeztatzeko prozedurari ekitea erabakiko du. Prozedura hori Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren buruak instruituko du; honek berak zuzenean egin dezake instrukzioa edo bestela Zerbitzuari atxikitako funtzionario bat eskuordetu dezake.

3. Aurreko idatz zatian aipatutako erabakia zergadunari jakinaraziko zaio egindako txostenarekin batera. Zergadunak hamabost egun balioduneko epealdia edukiko du bere eskubideen aldeko alegazioak eta agiriak aurkezteko.

Gainera, bidezkotzat jotzen diren instrukzio egintza guztiak egin ahal izango dira, eta zergapekoak egintza horiei ezin badie alegaziorik aurkeztu prozedura ebazteko proposamena prestatu baino lehen, espedientearen berri emango zaio eta beste epealdi bat emango zaio alegazioak aurkezteko: hamar egun baliodun.

4. Instrukzioa amaitu ondoren Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren buruak espedientearen bildutako elementu guztiak aztertuko ditu eta ebazpen proposamena bidaliko dio Ogasuneko zuzendariari. Proposamen horretan gutxienez ondokoak zehaztu behar dira:

- a) Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeko baimena ezeztatu behar den edo ez.
- b) Espedientearen bildutako egitateak, ebazpen proposamena justifikatzen dutenak.
- c) Proposamena baimena ezeztatzea bada, ezeztapena noiz hasiko den ondorioak sortzen zehaztu behar da; egun hori prozedura hasi aurrekoa izan daiteke, baina ezinbestekoa da araubide berezia aplikatzeko ezarritako baldintzak betetzen ez direla pentsarazten duten zantzuak bilduz gerokoa izatea.

5. Ogasuneko zuzendariak administrazio espedienteaz aztertuko du eta ebazpena emango du: baimena ezeztatzea edo prozedura artxibatzea. Ebazpena zergadunari jakinaraziko zaio.

Zazpigarrena. Atxikipen tasen aldaketa 2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra arte, biak barne.

Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko 56. artikuluko a), c) eta d) letrak aldatu dira eta 2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra arte, biak barne, testua hauxe izango da:

- a) Oro har, ehuneko 21.

(...)

- c) Hiriko ondasun higiezinaren errentamendu eta azpierreantamenduaren kasuan, ehuneko 21.

- d) Talde inbertsioko erakundeen akzioak eta partaidetzak eskualdatuta edo ordainduta lortzen diren ondare irabazien kasuan, ehuneko 21.

Zortzigarrena. (4) Hobariak ikerlarien Gizarte Segurantzako kotizazioetan.

1. Mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainentzat bateragarriak izango dira ikerlarien Gizarte Segurantzako kotizazioetan aplikatu ditzaketen hobariak (ekainaren 13ko 475/2014 Errege Dekretua, ikerlarien Gizarte Segurantzako kotizazioetan aplikatzen diren hobariei buruzkoa) eta ikerketa eta garapen jarduera batzuegatik eta berrikuntza teknologikoko jarduera batzuegatik aplikatu ditzaketen kenkariak (abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergarena, 62. eta 63. artikulua).

2. Gainerako enpresa eta erakundeentzat ere bateragarriak izango dira ekainaren 13ko 475/2014 Errege Dekretuan arautzen den hobaria eta aurrean aipatutako kenkarien araubidea, baina baldintza hau betez gero: ezin zaizkio aplikatu ikerlari berari. Halakoetan, enpresek ondoko hauetako bat aplikatzea hautatu ahal izango dute: hobaria Gizarte Segurantzako kotizazioetan, hain zuzen ere aurrean aipatutako errege dekretuko 2. artikuluan aipatzen diren langileei dagokiena, edo langile horiek aritzen diren proiektuetan abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 62. eta 63. artikuluetan aipatzen dituen jarduerak eginez eragiten dituzten kostuei dagokien kenkaria.

Aurreko paragrafoan ezartzen denarekin bat etorritik, enpresek batera aplikatu ditzakete ikerlari batzuen hobariak eta kenkari eskubidea ematen duten proiektu bereko beste ikerlari batzuei dagozkien kenkariak.

3. Aldi berean hobariak eta kenkariak aplikatzen dituzten erakundeek eta enpresek urtean egindako jardueren, burututako proiektuen eta hobaria aplikatutako ikerlarien memoria aurkeztu beharko dute, zerga administrazioak eskatuz gero.

Bederatzigarrena. (4) Zuzenketak emaitzaren aplikazioan.

Zergaren Foru Arauko 52. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan eta 53. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoan ezartzen diren mugak zerga oinarriari aplikatuko zaizkio, hain zuzen ere foru arau horretako IV. tituluko V. kapituluaren ezartzen denaren arabera emaitzen aplikazioan egin beharreko zuzenketak aplikatu aurreko zenbatekoari.

Hamargarrena. (2) Zenbait atxikipen tasa aldatzea, 2015eko abenduaren 31 arte.

2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31 arte, biak barne, aldatu egiten dira arautegi honen manu hauek:

56. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“56. artikulua. Atxikipenen eta konturako diru sarreraren ehunekoak.

Atxikipenen edo konturako diru sarreraren ehunekoak hauxe izango da:

a) Oro har, ehuneko 20.

b) Irudia ustiatzeko eskubidea lagata edo baimena emanda lortzen diren errentei dagokienez, ehuneko 24.

c) Hiriko ondasun higiezin errentamendu eta azpierrementamenduaren kasuan, ehuneko 20.

d) Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetzak eskualdatuz edo itzuliz lortutako ondare irabazien kasuan, ehuneko 20.

e) Loteria eta apustuetako sariei ehuneko 20 aplikatuko zaie, baldin eta zenbatekoagatik zenbait loteria eta apusturen gaineko karga berezia (azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenaren, hemezortigarren xedapen gehigarrian araututakoa) jasaten badute eta karga horretatik salbuetsita ez badaude. Horrelakoetan, kargapean eta salbuetsi gabe dagoen sariaren zenbatekoari aplikatuko zaio atxikipena, xedapen gehigarri horretan ezarritakoarekin bat etorritz.”

Hamaikagarrena. (5) Atxikipenen edo konturako sarreraren portzentaje orokorra, 2015ean aplikagarria.

2015eko urtarrilaren 1a eta 2015eko uztailaren 11 bitartean, ehuneko 20 izango da araudi honen 56.a artikuluan aipatzen den atxikipenaren edo konturako sarreraren ehunekoa. Ehuneko hori 19,5 izango da 2015eko uztailaren 12a eta 2015eko abenduaren 31 bitartean.

Hamabigarrena. (6) 2015ean kasu berezietan aplikatzekoak diren atxikipenen edo konturako ordainketen ehunekoak.

Erregelamendu honen 56. artikularen c) eta d) hizkietan aurreikusten diren atxikipenen edo konturako ordainketen portzentajea ehuneko 20 izango da, atxikipena edo konturako ordainketa egiteko betebeharra 2015eko abuztuaren 1a baino lehen sortua bada. Portzentaje hori 19,5 izango da, atxikipena edo konturako ordainketa egiteko betebeharra data horren ostean sortua bada”.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Mikroenpresen baterako amortizazioa.

Foru arau honetako 21. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoari heltzen dioten mikroenpresek baterako amortizazioa aplikatu beharko diete balantzean dauzkaten ondare elementuetatik batera amortizatu daitezkeen guztiei.

Hala ere, baterako amortizazioan ez dira sartuko hautapena egin aurretik zergadunak amortizatze askatasuna (Zergari buruzko Foru Arauko hamaseigarren xedapen iragankorra), amortizazio azkarra (Zergari buruzko Foru Arauko 21. artikuluko 2. idatz zatia edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko 50.

artikulua) edo finantza errentamenduko kontratuen kuoten kenkaria (Zergari buruzko Foru Arauko 18. artikulua edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko 116. artikulua) aplikatu dien ondare elementuak. Horiei guztiei hautapenaren aurrekoa aplikatuko zaie guztiz amortizatu arte.

Bigarrena. Dokumentazio betebeharren salbuespena ondasun higiezinak errentan edo azpierrean ematen direnean eta haiek erabiltzeko edo gozatzeko eskubide errealak eratzten edo lagatzen direnean.

Aurretik formalizatu eta 2010eko urtarrilaren 1ean indarrean egon diren kontratuez araudi honetako 19. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko bertan ezarritako erregelak aplikatuko dira, baina ondasun higiezinaren baloraziorako erreferentziatzat 2010eko urtarrilaren 1a hartu behar da bost urteko lehen aldirako.

Hirugarrena. Atzerriko balore jakin batzuk dituzten erakundeen araubidea.

1. Araudi honetako bosgarren xedapen gehigarriko 6. idatz zatian ezarritakoa gorabehera, Zergari buruzko Foru Arauko hamahirugarren xedapen iragankorreko 1. idatz zatian aipatzen diren zergadunek balore jakin batzuk dituzten erakundeen araubidearen aplikazioari uko egiteko idazkia aurkeztu behar dute 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldiko lehen hamar hiletan.

2. 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako azken zergaldira arte Sozietateen gaineko Zerga ordaintzeko atzerriko baloreak dauzkaten erakundeen araubide berezia aplikatu duten zergadunek ez badiote heltzen Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidearen aplikazioari uko egiteko aukerari foru arau bereko hamahirugarren xedapen iragankorreko 1. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz, xedapen gehigarri horretan xedatutakoa aplikatuko dute 2014ko urtarrilaren 1aren ondoko bost urteetan amaitzen diren zergaldietan.

Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidearen aplikazioari uko egin nahi diotenek araudi honetako bosgarren xedapen gehigarriko 6. idatz zatian xedatutakoa bete behar dute.

3. Aurreko 1. idatz zatian aipatzen diren zergadunek Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeari utziko diote 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldian.

Hala ere, egun horren ondoko zergaldietan aipatutako xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzen segitu nahi badute, eskaera aurkeztu behar dute Zergari buruzko Foru Arauko hamahirugarren xedapen iragankorrean ezarritako araubide iragankorra aplikatu ahal den azken zergaldia amaitu aurreko sei hiletan. Horretarako prozedura Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarriko 1. idatz zatian eta araudi honetako bosgarren xedapen gehigarrian ezarri da.

Aurreko paragrafoan aipatutako manuetan aipatzen den baimena jaso ondoren, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldia hasitakoan idatz zati honetan aipatzen diren zergadunei osorik aplikatuko zaie Zergari buruzko Foru Arauko

hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea, 8. idatz zatian xedatutakoa barne.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

1. Foru dekretu hau indarrean jarritakoan indargabetuta geratuko da Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onartu duen abenduaren 10eko 60/2002 Foru dekretua, bigarren xedapen gehigarria eta lehen, bigarren eta seigarren xedapen iragankorrak izan ezik, hauek ondorioak sortzen segituko baitute aplikatu behar diren kasuetan.

2. Gainera, foru dekretu honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo behezagoko mailako xedapen guztiak indargabetu dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena. Garapena.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu honetan xedatutakoa garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

OHARRAK

- (1) Ikusi arautegi honetako zazpigarren xedapen gehigarria; abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuaren bidez onartu zen.
(ALHAO, 89. zk., 14-8-8koa)
- (2) 63/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa.
(ALHAO, 146. zk., 14-12-24koa).
- (3) Ikusi arautegi honetako hamargarren xedapen gehigarria; abenduaren 16ko 63/2014 Foru Dekretuaren bidez onartu zen.
(ALHAO, 146. zk., 14-12-24koa)
- (4) 9/2015 Foru Dekretua, martxoaren 10ekoa.
(ALHAO, 33. zk., 15-3-18koa)

- (5) 41/2015 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa.
(ALHAO, 90. zk., 15-07-31koa)
- (6) 48/2015 Foru Dekretua, abuztuaren 4koa.
(ALHAO, 98. zk., 15-08-21ekoa)
- (7) 23/2016 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa.
(ALHAO, 29. zk., 16-03-11koa)
- (8) 3/2017 Foru Dekretua, otsailaren 14koa.
(ALHAO, 22. zk., 17-02-22koa).
- (9) 27/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa.
(ALHAO, 55. zk., 17-05-17koa).
- (10) 1/2019 Foru Dekretua, urtarrilaren 15ekoa.
(ALHAO, 10. zk., 19-01-23koa).
- (11) 3/2019 Foru Dekretua, urtarrilaren 15ekoa.
(ALHAO, 10. zk., 19-01-23koa).
- (12) 49/2021 Foru Dekretua, urriaren 19koa.
(ALHAO, 123. zk., 21-10-26koa).